



Zaharkinak Ataunen



**Aitor Perez eta
Dioni Galparsoro
txirrindulariak**

**Ormaiztegi
Zumarraga
errepidea**

**Segurako dantza
txapelketa**

2002ko uda

antzizar kiroldegia. tel.943 88 79 00





BERMEA
3URTE
100.000 Km

Land Rover kontzesionario berria ireki dugu Gipuzkoan. **EUROLAN 4x4**



THE LAND ROVER EXPERIENCE

EUROLAN 4x4 Donsotia-Hernani errepidea (Galarreta) Telefonoa: 943 331 006

Boni-etxe

igeltseritza orokorra



☎ 616 921 502 ☎

Oriako pasealekua, 12

BEASAIN

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

E-mail:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Iñaki Zubeldia, Edurne Ayuso, Leire Telleria, Oihana Sarasola, Mari Flor Mendizabal, Aimar Maiz, Patxi Telleria eta Carlos Aseginolaza.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 8.300 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen
derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Igartzako ostegunak: Poltsikoko ikuskizunak

Beasaingo Igartza jauregian, ostegunetan, kultur ikuskizun ezberdinak izango dira ekainaren 27ra bitartean. Maiatzaren 30ean hasi zen 'Igartzako ostegunak, Poltsikoko ikuskizunak' kultur programa, Carlos Montereron tango ikuskizunarekin. Riki Lopez ere izan zen. Kultur zikloa amaitzeko hiru ekitaldi gelditzen dira.

Igartzako ostegunak, Poltsikoko ikuskizunak' ekimen honekin, asteko egun hau, osteguna, sendotu nahi dute Beasaingo Udaleko Kultura Batzordekoek.

Igartza jauregiko patioan izango dira emanaldiak, ekaineko ostegunetan, 3 euroren truke.

Javier Arrillaga musikari zarauztarren jarduna da hurrengoa, ekainaren 13koa. Ahotza eta gitarra elkartuz, mota askotako abesti-sorta eskainiko du.

Egitaraua

Ekainak 13: Javier Arrillaga: 'En concierto'.

Ekainak 20: Mikel Telleria, 'Kontzertuan'.

Ekainak 27: Ramon Agirre eta Joseba Senperenaren, 'Ondo esan beharko' antzezlan.

Ekainaren 20an, Mikel Telleria idiaza-baldarraren musika kontzertua izango da. Neil Young akustikoaren oihartzunak, Dylanen tankerako aho-soinuak, Van Morrison....

Azkenik, hilaren 27an, Ramon Agirre eta Joseba Senperenak 'Ondo esan beharko' antzezlan eskainiko dute. Umore saioa da berau.

Goierritarra Goierriaz kanpo jaso nahi dutenenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:
Ipar Euskal Herria eta Europa:
Europaz kanpo:

urtean 12 euro
urtean 24 euro
urtean 36 euro

Jose Mari Zaldúa aske

Apirilaren 19an Frantziako Poliziak atxilotu eta kartzelari sartu zuen Ezkio-Itsasoko Jose Mari Zaldúa, libre gelditu zen maiatzaren 30ean. Hurrengo egunean, berriaz atxilotzeko agindua eman zuen Frantziako Poliziak. Itxura denez, ordenagailuko hutsegitea izan da arrazoiak. Espainiak Zaldúaren estradizioa eskatu zuen baina ordenagailuan ez omen zen horrelako agindurik azaldu. Ezkioarrak zazpi kausa ditu Espainian.

Legorretan lan istripua

Maiatzaren 29an, P.L.R. Zumarragako langilea hil zen Legorretan. 800 kiloko xafila batek azpian harrapatuta hil zen 41 urteko langilea. Lan istripuak eragindako heriotza salatzeke, ELA, LAB, ESK eta EILAS sindikatuek kontzentrazioa egin zuten Legorretako Bidarte auzoan, ezbeharrak izan zen lekuan.

LAB sindikatuak antolatuz LanEus I. Mintegia: 'Lan Munduan euskaraz'

LAB sindikatuak euskararen aldeko ekintza sindikala antolatu eta egituratzeko oinarriak jartzeko helburuarekin egin zen maiatzaren 31n Beasaingo Indar enpresan, LanEus I. Mintegia. LAB sindikatuak 1999an 'EusLab' egitasmoa abiatu zuen, Euskararen Normalizaziorako I. Egitasmo Estrategikoa. Egitasmo horrek, ikuspegi globala bereganatuz, sindikatuaren barruan eta kanpora egin beharrekoei erantzun nahi die, LABetik adierazi digutenez. "Horregatik, bi ardatz nagusitan banatzen da. 'SinEusk', sindikatuak euskararen erabileraren hobekuntza xede duena, eta, 'LanEus', lan-munduan euskararen erabileraren sustapenari zuzendua. Azken bi urte hauetan bereziki barruko lana egin da SinEusk jorratuz; orain, berriaz, sindikatutik kanpora lan munduan euskararen normalizaziorako aha-

Eugenio Etxera! aldarrikapena ekainaren 16an 22 urte daramazki ordiziarrek kartzelan

Ordiziako Eugenio Etxera ekimenak Eugenio Irastorza presoaren askatasuna eskatzeko hainbat eta hainbat ekintza burutu izan ditu. Ekainaren 16koa, bat gehiago da. 'Eman urratsa' lelopean, ekainaren 16an, igande, arratsaldeko 7etan, Altamira auzotik abiatuta, herriari bira emango zaio, testigua eta lekukoa elkarri pasatuz. Herriko plazan amaituko da ekimena. Ordiziako 28 talde eta erakunde ezberdinek bat egin dute ekimenarekin. Ekitaldiaren amaieran, Patxi Zubizarreta idazle ordiziarren testua irakurriko da.

22 urte kartzelan

Eugenio Irastorzak 22 urte daramatza kartzelan. 1995ean zigorraren hiru laurdena bete zuen eta legeraren arabera kalean behar luke. Eugenio Etxera ekimenak, egoera hori salatu nahi du, "gizarteak sensibilizazio puntu bat har dezan eta jarraitu beharra ikusten dugulako", diote Ekimeneko-



Ordiziako Ikasle Abertzaleak taldeak bat egin du Eugenio Irastorzaren askatasuna eskatzeko ekimenarekin.

ek. Ordiziarrei ekimenean parte hartzeko deia luzatzen die, "Eugenio etxeratzea errazagoa izango delako".

Askatasunaren deia

Ordiziako Askatasuna taldeak adierazi duenez, Eugenio Irastorzarekin batera, "Ordizian baditugu 5 preso eta 3 iheslari politiko gehiago; eta Euskal Herri osoan 610 preso eta 2000tik gora iheslari politiko. Argi dago, Euskal Herriak bizi duen gatazka politiko honi benetako irtenbide bat eman nahi badiogu, prozesu honetan,

gatazka honen ondorio diren preso eta iheslari politikoaren partehartzea ezinbestekoa dela, benetako amnistia-aren bitartez. Kanpo inje- rentziarik gabea izan behar- ko duenez, atzerriko indar zapaltzaileak alde egin be- harko dute".

Askatasuna taldeak bat egin du Eugenio Etxera ekimenarekin eta ekainaren 16ko ekimenean parte hartzeko gonbitea luzatu du, "Eugenio etxeratzeak beste pauso bat suposatuko baitu amnistia-aren bidean".



leginari arretra berezia eskaini nahi zaio LanEus arloa egituratuz", argitu du LABek.

Mintegian, enpresetan normalizazioan jardun duten LABeko afiliatuek hartu zuten parte. Xabier Madariaga, Indar enpresaren partaidea den Ingeletrik Taldearen zuzendaria eta Ralfa Diez Usabiaga LABeko idazkari nagusiak ere parte hartu zuten.



Sasieta Sariak

Sasieta Mankomunitateak ikastetxeen artean antolatzen duen Jostailu lehiaketako sari banaketa egin zen maiatzaren 30ean, Beasaingo Udal-etxean. 3 ikastetxeei eman zitzaion saria: DBH mailan, Zumarragako La Salle-Legazpi ikastetxearentzat izan zen; LHko 6. mailakoen artean, Zaldibiako Lardizabal ikastetxearentzat. Aurten, akzesita eman du Sasieta Mankomunitateak eta Beasaingo Murumendi ikastetxearentzat izan da. Guztiak elkarrekin, maiatzaren 31n, Bidarraira (Nafarroa Beherea) joan ziren, rafting-a egitera.

4 Goierriko bertsolari Gipuzkoako Eskolarteko finalean

Gaur, ekainak 7, arratsaldeko 4etan, Zumarragako Beloki pilotalekuan, jokatuko da Gipuzkoako Eskolarteko finlala. Bai txikien mailakoa, bai handien mailakoa. Txikienen atalean, ez da Goierriko talderik arituko. Handiengan, berriz, 8 finalistetatik 4 goierritarrak dira: 3 ataundar eta gabiriarrak. Izen eta abizenekin, hona hemen jarraian zerrenda: Aitzol Munduate, Iban Urdangarin eta Oier Zurutuza ataundarrak eta Jokin Murua gabiriarrak.

Kolonbian bahitutako ordiziarra aske

Ramon Arizmendi Garmendia ordiziarra, FARC gerrillak bahitua izan maiatzaren 11z geroztik. Maiatzaren 26an aske utzi zuten. 58 urte ditu Arizmendik. Ordiziarra da, baina 20 urte daramazki Kolonbian. Bahiketaren arrazoirik ez da ezagutze-
ra eman, eta erreskaterik ordaindu dena ala ez, ere ez.



hilean euro 1
Goierritarra
etxean jasotzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Telefonia: **Adina:** **NAN:**

Kontu zenbakia (20 digitu):

Goierritarraren harpidedun naiz ☐
eta hala izaten jarraitu nahi dut

Ez naiz Goierritarraren harpide ☐
eta hemendik aurrera izan nahi dut

**Bidalí txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia
eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro (2.000 pezeta inguru)
kobratuko dizkizugu zure kontu korrontetik**

Ekainaren 19an greba orokorra

Langabeziaren inguruko azken erreforma hau, PPren gobernuaren egiten ari den erreforma guztien artean beste salto bat da. Lehenik prekaritatea instituzionalizatzen zuen lan erreforma izan zen, ondoren pentsioen inguruan eginikoa, Hitzarmen kolektiboaren inguruan egin asmo zuena, eta orain azkenik langabeziaren ingurukoa.

Erreforma guztiak neoliberalismo gogorrenetik aplikatuak, lan harremanen inguruko erregulazio eza, lan merkatuaren geroz eta flexibilizazio nabarmenagoa, despidoa libre izaterantz bere kostuaren merkatze iraunkorra, horrela gastu soziala murriztuz....

Baina guzti honen gainetik Euskal langileoi ezarritako inposaketa berri bat da, Berriro ere Madrilen erabakitakoaaren ezarketa garbia, Euskal instituzio, sindikatu eta herri-tarron hitza ezertarako ere kontutan izan gabe.

Egoera hau da aldatu behar duguna, lan harremanetarako euskal esparrua behar dugu, Madrilen Aznarrek edota CCOO eta UGT egositako hitzarmenen inposaketik gabe Euskal Herrian Bertako instituzio eta langileon artean, geure lan harreman eta neurri sozialak adosteko aukera eskainiko digun marko juridiko politikoa premiazkoa dugu. Euskal Herria eta euskaldunok sujeta izan gaituen marko juridiko eta politikoa.

CCOO eta UGT-k sei urte daramate PPren politika ekonomiko zein soziala legitimatzen, eta orain gobernuarekin konfrontaziorako deia luzatzen dute, zergatik ote? Espainiako ezker politikoak PP desgastatzearen premia du batetik eta bestetik ustelduriko sindikalgintza espainiarraren ideologizazio eta mobilizazio gaitasuna aktibatzearen premia. Gogoratu, CCOO-UGT-k bat egiten dutela Hego Euskal Herriari bai enplegu edo politika sozialak bideratzeko beharrezko ditugun tresna propioak izatearen ukazioarekin. Hobeturi egiten dioten sabotaje iraunkorra, (beraien mantenurako dabilten forcem-en bidez) INEM eta Gizarte Segurantzaren trasferentziei uko eginenez. Hitzarmen kolektiboaren zentralizazioaren aldeko jarriera mantenduz. Nafarroan UPNri laguntza eskainiz euskal sindikalgintza baztertze-ko.

Beraz, Euskal Herritik eman behar diogun pultsua ondo kokatzea ezinbestekoa zaigu.

PPren gobernuari eta bere politika ekonomikoari Euskal Herriak eman beharreko erantzun bateratua da. Baina aldi berean Guzti hau sostengatzen duen modelo politikoari eman behar diogun erantzuna. Hau da, Euskal Langileok iraunkorki eta etengabe Madril edo Pariseko dekretupean lotzen eta zapaltzen gaituen arazo estruktural honi erantzutea. Euskal Herriak jasaten dituen inposaketa guztiei Herri gisa erantzun

nazional tinko eta sendo bat emateko eguna.

Askotan sinestea kostatzen zaigun arren lortzen ari gara eta lortuko dugu. Animo eta lanera, jo ta ke.

Mikel Garmendia (LAB)

Eugenio Etxera!

Hau irakurtzen ari zareten askok eta askok 1980ko otsailaren 27an kokatu ahal izango duzue zuen burua. Hau idazten ari garenek ez.

Artean jaiotzeko geunden, baina, gaur, badakigu, ondo jakin ere, egun horretan zer jazo zen: gure herrikide Eugenio Irastorza atxilotua izan zen, eta gaur, 22 urte, 3 hilabete eta 4 egun pasa diren honetan, berriro ere 1980ko otsailaren 27a dela esan dezakegu: Eugeniok gatibu jarraitzen du.

Denbora luze honetan zehar, dispersioaren ondorioak jasan behar izan dituzte, bai berak eta bai bere senideek, psikologikoki nahiz fisikoki torturatua izan da, giza eskubide guztiak ukatuak izan zaizkio, eta gaur eskubide hauek ukatuak izaten jarraitzen dute: 1995ean kondanaren hiru laurdenak bete zituenetik kalean beharko luke. Baina, ez, Eugeniok gatibu jarraitzen du.

Ordiziako ikasleok badugu zer esanik guzti honetan: ezin dugu geldirik egon, ezin dugu ixilik geratu. Gaur, bihar ere 1980ko otsailaren 27a izan ez dadin, inoiz baino ozenago exijitu behar dugu Eugenioren kaleratzea.

Hain zuzen ere, ikasle guztiei gonbidapena luzatzen dizuegu, ekainaren 16an, igandea, arratsaldeko 19:45etan etor zaitezte! Ordiziako Joseba Rezola etorbidera (Vialsur) Eugenioren kaleratzearen alde urrats bat ematera.

*Eneritz Garmendia
Ordiziako Ikasle Abertzaleak*



Argitarapen honen edizioa laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

Sua mendian

Aurten ere otadi eta txilardiak sutan ikusteko aukera izan dugu gure mendietan: Jaizkibel, Ernio eta Aralarren, adibidez. Azkeneko honetan, gainera, eztabaida sutsua piztu du aldizkarietan, batzuek alde eta besteak aurka. Antzinako tresna dugu sua mendia sastrakaz "garbitu" eta larre pixka bat sortzeko. Hala ere, beti, erretako gunea berriro otadi edota txilardi bihurtzen da urte gutxi barru eta berriro ere lehengoan aurkitzen gara.

Sua erreminta erraza eta merkea da helburu horretarako, baina bere alde txarrak ere baditu. Denetan larriena lurzoruan duen eragina da. Otadi bat erretzen denean lurzorua urez aseta edota izoztuta aurkitzen ez bada, eta hori egun oso zehatzetan bakarrik gertatzen da, erretzen dena ez da otea bakarrik, baizik eta lurzoruaren goiko geruza ere, gai organiko eta bizidunetan aberatsena eta emankorrena, erre eta errauts bihurtzen da. Errauts hori askotan, haizearen edo euriaren indarrez, galdu egiten da eta gehienetan erreketan bukatzen du. Ez diogu lurzoruari garatzen uzten eta geroz eta elkorrago bihurtzen da, ote eta txilarren onerako.

Erre eta berriro belar eta sastrakak lurra jantzi arteko denboran lurzorua biluzik aurkitzen da eta hor euri urak bere lana egiten du. Otadiak garatzen diren leku malkartsuetan urak abiadura handia hartzen du euri jasak gertatzen direnean eta horren indarrez lur asko galtzen da sail horietan. Kendu eta jarri gabe pila jaitsi besterik ez da egiten. Horrela maneiatzen diren lurzoruak galtzeko arrisku bizian aurkitzen dira eta, tratamendu hori luze jarraituz gero, hondamendia ziurra da.

**"Otadiak suaz
'garbitzea' gaurko ogia
biharko gosea besterik
ez da"**



Bestalde, otadi eta txilardiak mendiko fauna eta flora espezie askorentzat gordeleku ezinbestekoak dira bere bizia garatzeko. Bertan umatzen dira erbiak, bertan babes ten dira karakolak, intsektu askok bertan egiten dute bizia, txori askok bertan egiten dute bere habia, lurzoruaren goi aldean dagoen aniztasuna ere ezin da ahaztu, naiz eta bizidun txikiak izan, funtsezko papera betetzen dute kate trofikoan eta lurzoruaren garapenean. Erretzen direnean fauna eta flora hori ia erabat galdu egiten da, eta bereziki udaberri aldera egiten denean, espezie gehienak erreproduzio lanetan ari direnean.

Gai hauetaz arduratu diren adituek behin eta berriro garbi utzi dute sastrakadiak "garbitzeko" sua periodikoki erabiltzeak hondamendia besterik ez duela ekartzen epe erdi edo luzera, erabiltzen diren sistemen eta lekuko klimaren arabera. Mediterraneo inguruko biluztutako paisaia, Kantauriko Mendietako isasti elkorak edo Gaztelako muino soilak su eta gehiegizko abeltzaintzaren fruitu dira. Otadiak lur pobreenetan irteten dira. Bertan basotxoak sortzea askoz ere egokiagoa iruditzen zait, bai lurzoruentzat eta bai abereen ongizaterako, lau edo bost urte oro erre behar den eta sekula itxurazko larrerik emango ez duen lekua mantentzea baino.

Carlos Aseginolaza

JAKIN BEHARREKOA

✕ Maiatzaren 24an Ingurugiro Hezkuntzako Fundazio Europarrak Bandera Berdearekin saritu ditu Legorretako Ugara eta Zaldibiko Lardizabal ikastetxeak Ecoschools-Ekoeskolak kanpainara era egokian garatzeagatik.

✕ Belardi bateko **garoa kentzeko erarik egokiena** udaberri bukaeran eta uda hasieran sega erabiltzea da, maiatzaren bukaeran eta, berriro, ekainaren bukaeran eginez gero asko urritu eta ahulduko da. Tratamendu hau urte batzutan eginez gero erabat kentzea lortuko dugu. Ez da gauza berria, betidanik baserriarrak beren belardietan egin ohi izan duena da.

✕ Hain gorrotatuak diren **oteek funtsezko papera betetzen dute lurzoruaren mantenuan**. Sustrai luzeak eta tinkoak dituzte, adarrak ugari eta itxian ematen dituzte eta, lekadunak direnez, nitrogenoa airetik hartuta lurzoruaren finkatzen dute. Honengatik lurzorua eutsi, babestu eta ongarritu egiten dute. Nahiz eta guri azala zulatu, lurrari mesede handia egiten diote. Bi espezie daude Goierriin: *Ulex europaeus* eta *Ulex galii*, lehenengoa negu eta udaberriaren loratzen da, bigarrena, berriz, uda eta udazkenean.

LIBURUA

"Factor 4", von Weizsäcker et al, 1997. Liburu honek Erromako Club-arentzat egindako txosten bat jasotzen du. 50 adibide aurkezten dira bertan natur baliabideen erdia erabiliz ongizatea bikoizteko. Derrigorrezko liburua garapen jasagarriaz jakin mina duenarentzat.

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

Ekainaren 16tik uztailaren 14ra Ataungo Auzoeta pilotalekuan

Zaharkinak erakusketa: belaunaldien arteko lotura

Aranzadi Zientzia
Elkarteko Etnografia
Sailaren eskutik eta
Ataungo Udalaren
laguntzaz, 14. Zaharkinak
erakusketa Ataunen izango
da ekainaren 16tik
uztailaren 14ra bitartean,
Auzoeta pilotalekuan.

Maiatzaren 20an hasi ziren Ataunen traste zaharrak biltzen. Lanean hasi eta aste-betera egin genion elkarrizketa Joxe Bikuñari, koordinatze lanean ari den ataundarrari. Ordurako 1.500 objektu bilduak zituzten. Bi asatetan Ataunen baserri baserri eta etxez etxe ibili ziren Aranzadiko hiru ordezkari eta Joxe Bikuña Ataungo koordinatzailea, erakusketa osatzeko materiala jasotzen.

Antolatzaileen hitzetan bi helburu ditu erakusketak, "gizartearen bi kate maila, lehenengo belaunaldia eta oraingoa, lotzea eta ikustea mundua ez dela beti gaur egungoa izan. Beste helburu bat da, erakusketa ikusita, tresnak gureak direla eta gure herriko bizipenen adierazpen direla jabetu eta maitatzea".

Joxe Bikuñarentzat oso interesgarria da Zaharkinak



Zaharkinak erakusketako antolatzaileak prestaketa lanetan Auzoeta pilotalekuan.

erakusketa, "gureak diren gauza eta gure nortasuna pixka bat finkatzeko. Gauza hauek askotan bazterrerara botata egon dira, traste zaharrak ezertarako balio ez balute bezala. Baina guk uste dugu traste zahar horiekin gure historia ezagutu eta ikutu egiten dela".

Aspaldi zen horrelako proiektu baten ameslari Joxe Bikuña. "Dirulaguntzarik ez zen lortzen eta udaletxean ere baziren beste zenbait arrazoi. Orain Diputaziotik laguntza lortu denean, niri deitu didate eta nik ezetzik esaterik ez neukan".

Koordinatze lanean ari da

Joxe Bikuña. "Auzoka banatu genuen herria eta zein lekutan zer egon ote zitekeen aztertu genuen. Hor egin genuen aukeraketa zein etxetara jo behar genuen". 80 baserri eta etxetara joan gara.

Jendea oso ondo ari da erantzuten, bai etxean dituzten hainbat objektu, lanabes, altzari eta abar uzteko garaian baita lan egiteko garaian ere. Jubilatuei proiektuan parte hartzea eskatu diete, garbiketari, zainketa lanetan... eta hauen erantzuna ere oso ona izan da.

Aiatarrak izan omen dira finenak. "Bertako elkartekoak ahalegindu ziren, guk

Ikustorduak

Astegunetan: Bisita gidatuak aurrez ordua hartuz (943 180011).

Asteburuetan: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.

Larunbatetan: Sorta belarrik kablean bidaltzeko erakustaldia.

egindako txostena etxez etxe banatzen, zer bildu genezakeen zehaztuz. Etxe bakoitzean zerrenda eginda dute eta Aian ia etxe guztietatik gaude pasatu beharrean".

Bakarren baten eskua aurretik pasatuta dagoela nabari dela esan du Fermin Leizola.

Tresna bereziak

Aurkitu dituzten tresna berezietaz galdetu diogu Joxeri. "Don Juan Arin Dorronsorok 'La industria del lino y del carbon en Ataun' liburua idatzi zuen. Joan zen gizaldiaren hasieran eta geroago ere, linoa egiteko tresnak etxe guztietan zauden. Haria egiten zuten etxeetan eta ehuna edo tela egiteko telarra zeukaten etxeetara eramaten zuten eta han egiten zituzten izarak eta abar". Aurkitu dute linoa egiteko tresnaren bat edo beste.

JOXI iturgintza
Jose Inazio Etxeberria Arriabarrena

GASA - BEROGAILUAK

943 884 387
676 178 488

Ibarguren baserria
ZALDIBIA

ZUZENKI
AHOLKULARITZA

**Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa**

txekin

www.txekin.net

Etxebizitzaren salmenta:

**Lagorreta
Beasain
Orendain**

Tel/Faxa: 943 162 393

e.posta: zuzenki@euskalnet.net

Elosegi, 16 **LAZKAO**

Idiei edo txekor gazteen adarre forma emateko tresna; arbi okela eztarrian gelditu eta hori aurrera bidaltzeko bi egur dauzkan alanbrea ere aurkitu dute. Labatiba berezi bat ere aurkitu dute: zein kantitate eta zein tenperaturatan zegoen jakiteko tuboa eta termometroa. Orain dela urte asko ez dela ikusten ziren zumitzez egindako saski eta aulkiak, etxe bakar batean bakarrik aurkitu dituzte. Petrolioarekin argia egiten zuten kinka aurkitzea ere asko kostatu zaie. Sukaldeko garbiketarako erratza ere aurkitu dute, "erratx-belarraren bila jotzen ziren udazkenean emakumeak eta urterako belarra ekartzen zuten".

Berrituta dagoen baserri bat ikusi dute eta altzari berri bakar bat bera ere ez dago. Berritutako altzari zaharrak dituzte.

Urrezko eta zilarrezko objekturik ez dute hartzen. Manila mantoi bat aurkitu dute, zeta-zkoa, oso dotorea, baina ez da erakusketan egongo, jabeak horrela nahi izan duelako.

Argazki zaharrak, liburuak, Garizuman apaizak egiten zuen azterketaren txarte-



Gipuzkoan 14 herritan egin du Aranzadi Elkarteak Zaharkinak erakusketa. Goierriin, Zerainen, Zaldibian, Ezkio-Itsason eta Zegaman egina da aurretik.

la, eliz liburuak, eskapularioak... asko bildu dituzte. Liburu zaharretan berezia, San Ignazioaren ejerzizioak euskaraz, 1780 garai hartakoa. Kandelabro ezberdin asko ere bildu dituzte.

Ofizio guztietako tresnak jarri nahi dira. "Pobreena, denda gaian daukagu. Lehen dendetan izaten ziren balantzazko pisuak, latoizko platerekin, inon ez dugu bilatu. Olio neurtzekorik ez dugu aurkitu. Okindegi asunto-

an, ogia sartzeko pala bat badugu baina besterik ez".

Lehenengo lekura bueltan

Piezak itzuli egingo dira behin erakusketa bukatutakoan. Guztiek ere asegurua izango dute. Pena bat badu Bikuñak. "Lastima da horrelako lan bat egin eta horiek berriro etxeetara eramatea, jakinda leku askotan berriro pipia jotzen jarraituko duela eta hemendik hamar urtera pieza asko ez direla egongo.

Nire helburua edo ametsa izan da beti, Udalak, leku bat presta zezala, tresna horiek gordetzeko, jabetzarik galdu gabe. Orduan ganbaran bazterrean egon beharrean, leku batean gordetzea, baina hori oraingoz ezinezkoa da. Tresna guztien fitxa eginda geldituko da. Eta nire ametsa, Zerainen bezala, erakusketa iraunkorra izatea da".

Bideo bat egiteko asmoa ere badu Joxe Bikuñak, tresna bakoitza zertarako erabiltzen zen azalduz. Bizi izan ez dutenek horrela ikusi ahal izango dute tresna bakoitza nola eta zertarako erabiltzen zen.

Tresnen izenak jakiten ere lana izaten da. Zenbaiten izenik ere ez dakite. Hori dela eta, erakusketa egiten denean, norbaitek izena baleki lekutxo izango du paperean idazteko.

Kableak

Belarraren kablea montatu dute, jendeak nola funtzionatzaren duen ikusteko. Hau Ataunen gauza berezia da eta ikusi nahi duenarentzat larunbatetan egingo dute erakustaldia.



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
943 88 11 94
ORDIZIA



AROZTEGIA
Merkealdia!
esposizio aldaketagatik

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

ARAMAKO TABERNA

berriro zabalik!

Menuak

Asteburuetako menuak

Karta

943 888 953

Aramako plaza


ARAMA

Beasain-Durango zeharkako korridorearen zatiaren parte da Ormaiztegi-Zumarraga errepide zatiaren proiektua prest

Beasain-Durango errepidearen zati berria, Ormaiztegi-Zumarraga egiten laster hastekoak dira. Proiektua eginga du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Errepide berriaren datuak bildu ditugu erreportaje honetan.

Ormaiztegi-Zumarraga autobide zati Beasain-Durango zeharkako korridorearen zati da. Korridorea, Gipuzkoako hegoaldeko eskualdeak egituratzen dituen ardatza da eta Gipuzkoa eta Bizkaia lotzen dituen bidea. Zati hori Beasaindik Ormaiztegiraino dagoeneko eginga dagoenaren jarraipena da, Zumarragaraino iristen da Eizaga gainean (GI-632), eta bide batez Urola bailarako errepidearekin bat egiten du leku horretan bertan (GI-631). Oraingo GI-632 errepidearen saihestea da Ormaiztegitik Zumarragarainoko zati, baina autobidearen ezaugarriak ditu.

Errepideen Egitasmo Orokorrean aurreikusita dago autobide zati hori egitea, Beasain-Durango zeharkako ardatza modernizatu eta egokitzeko obren barruan. GI-632 errepideak trafiko handia izaten du Gipuzkoako Foru Al-



Ezaugarri nagusiak

Enborraren luzera	5,5 km.
Lotura bidearen luzera	0,9 km.
Egiturak:	
3 zubibide: Santa Luzia, Alegia eta Errazti.	
Gainera 2 pasabide.	
Azpiko 6 pasabide.	
8 horma.	
Aurrekotua guztira	38.546.958,36 euro (6.413.674.214 pezeta)
Obrak egiteko epea:	24 hilabete.

dundiak emandako datuen arabera: eguneko 18.000 ibilgailu batez beste, eta gainera errepide ertzean hirigintza proiektu ugari egin dira. Bi horiek izan dira Foru Aldundia autobide zati hori egitera bultzatu dituen arrazoi nagusiak.

Obrek ingurumenean duten eraginari buruzko deklarazioa jaso du Foru Aldundiak eta "aldekoa da, eraiketa proiektua eginga dago eta behar diren lursailen erabilgarritasuna ere lortu da. Beraz, obrak berahala hasiko dira".

Datu teknikoak

Proiektatu den autobide zatiaren enborrak 5,5 kilometro izango ditu, eta horri gehitu behar zaizkio 0,9 kilometro, Zumarragan, Eizaga gainean, egungo GI-631 errepidearekin eta GI-632 errepidearekin bat egiteko bideak.

Lotura bide hori, gerora, Zumarragako ekialdean Bergara-Beasain korridorearekin egingo den lotunearen zati izango da, eta bide horren bitartez behin-behineko lotura lortzen da autobide enborraren eta arestian aipatutako bi errepideen artean.

Orain egingo den autobide zati, dagoeneko egindakoa



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
943 88 87 02
BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27

943 88 20 07

BEASAIN



bezala, 80 km/h proiektuko abiadurako autobidea izango da, baina gutxieneko erradioa oinplanoan 450 metrokoa izango da, 100 km/h proiektuko abiadurako autobiderako eskatu ohi den gutxieneko erradioa betetzen duela. Gehieneko aldapa %4,25ekoa da.

Ebakidura mota, berriz, ondorengo da: 3,50 metroko bi erreiko galtzadak noranzko bakoitzean, 2,50 metroko bazterbideak kanpoaldean, metro batekoak erdialdean, eta 3 metroko erdibitzailea (barrualdeko bazterbideak, eta 0,75 metroko bermak sartuta).

Proiektuaren arabera, zati berriaren erdialdean zerbitzugune bat egingo da, eta bertarako sarbideak eta izango duen zabalgunearen prestakuntza proiektuan sartu ditu Foru Aldundiak. Zerbitzugunea zeharkako korridorean egingo da horretarako egin diren azterlanetan premiazkoa dela ikusi delako, eta non kokatu erabakitzeak kontuan hartu dira trazatuari buruzko arauak autobideetarako ezartzen dituen sarbideen arteko distantziak.

Egin behar diren obrak aipatzekotan, lehenengo lur mugimenduak aipatuko ditugu, aurrekontuaren %37 horretan joango baitira. Esan bezala, 2,8 milioi metro kubiko indusketa lana egingo da eta 2,7 milioi metro kubiko betelana. Lurrerauzketa eta lubeten arteko orekari esker hondakindegia handirik ez



da egin beharko. Bestalde, ordea, indusketetatik ateratako material guztia aprobetxatu beharra dakar, hezetasunaren edo kalitatearen aldetik onena ez bada ere.

Hiru zubibide

Ondoren proiektuko egiturak azalduko ditugu, aurrekontuaren %32ko kostua dute.

Egitura garrantzitsuena Santa Luziako zubibidea da, ibarra, Santa Luzia erreka eta egungo GI-632 errepidea zeharkatuko dituen. Aurreteinkatutako lauza arindua izango du, 10 begi, 40 metroko argia gehienez, 372 metroko luzera eta 23 metroko zabale- ra. Diseinatzeke garaian zaila

izan da eta egiterakoan ere hala izango da, egungo GI-632 errepidearen gainetik eta Iberdrolako subestazioa hornitzen duten tentsio altuko argindar linea nagusien azpitik igaro beharko duelako.

Bigarren egitura garrantzitsua Alegiko zubibidea da, ibarbidea eta Itsasoko errepidea zeharkatuko dituen. Bi egitura berdina izango ditu, bakoitzak 50 metroko hiru baho izango dituela.

Erraztiko zubibideak, berriz, Errazti erreka eta ibarbidea zeharkatuko ditu. Ingurumena kontuan hartuta aurreikusi du zubibide hori Foru Aldundiak, errekaaren ubidea eta ertzak bere horretan utzi

ahal izateko. Horrek ere bi egitura berdina izango ditu, baina begi bakarra, 47,50 metro argikoa.

Bi pasabide

Orain arte aipatutako egiturez gain, errepide gaineko bi pasabide, azpiko sei pasabide eta zortzi horma daude.

Zolatze eta drenaje lanei dagokionez, zoladura malgua izango duela adierazi behar da, aglomeratu porotsuaz amaituko dela autobidearen enborrean, eta trenbidearen azpian tunel txiki bat egitea aurreikusi dela Santa Luzia ibarraren goialdean dagoen errekaaren hustubideari konponbidea emateko.

Ingurumena

Ingurumenari dagokionez, berriz, aipatzekoa da Erraztiko zubibidea egingo dela, eta azpiko pasabideak eta drenaje-ko obrak diseinatzerakoan lurreko fauna autobidearen alde batetik bestera pasatzeko modua aztertu duela Foru Aldundiak. Gainera, paisaiarekin bat egin eta nabarmenegi ez gelditzeko zuhaitz eta berdeguneak jarriko dira. Foru Aldundiaren esanetan, aipamen berezia merezi dute, halaber, zarataren kontra aurreikusi diren hainbat motatako pantailak.

Autobide zati horren aurrekontua 38.546.958,36 eurokoa da (6.413.674.214 pe- zeta) eta obrak egiteko epea, berriz, 24 hilabetekoa, printzipioz.

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordura eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxe: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

JAUREGI TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN

Herria aztergai



Itsasondon azterketa sozioekonomikoa egiten ari da Siadeco enpresa. Enpresa honek ikerketa soziologikoak egin ohi ditu eta kasu honetan, Itsasondoko egoera soziala eta ekonomikoa aztertu nahi da. Ikerketa hau behar bezala egiteko ezinbestekoa da herritarren parte hartzea. Horregatik, udaletxean bilerak antolatu dira itsasondotar guztiek parte har dezaten. Bilera hauek astelehenero egiten dira, arratsaldeko 7,30etan. Edozein herritarrek parte har dezake, bai herriko taldeetako ordezkari gisa, bai eta gizabanako gisa ere.

Eduarne Ayuso

Leire Telleria

Herri Eskolak internet zerbitzua eskaintzen du

Eskolak herritar guztien eskura jarri du internet zerbitzua. Sarean nabigatu nahi duenak, edo eta "sarea" eta "internet" zer diren eta nola erabili jakin nahi dutenek horretarako aukera paregabea dute eskola bertan. Zerbitzu hau erabiltzeko ez da euro bakar bat ere ordaindu behar, dohainik baita. Oporretan nora joan erabaki behar baduzu; lagunei mezu bat bidali nahi badiezu edo bestelako kuriositatearen bat baduzu, deitu herri eskolara (943887704) eta eskatu ordua. Badakizu, Herri Eskolak interneten sekretu guztiak erakutsiko dizkizu, ausar zaitez!

Udako kanpaina

Herri eskolak udako kanpaina ekainaren 24an hasiko du, uztailaren 19ra arte. 2 eta 12 urte bitarteko haurrentzat izango da. Goizetan, 10etatik 1a arte, jolasak, ibilaldiak eta abar egiteko aukera izango da. Informazio gehiagorako Herri eskolara deitu.

Oriora irteera

Herri eskolako haur eta gurasok irteera egingo dute ekainaren 16an Oriora.



Jaunartzeak

Joan zen igandean, Maiatzak 26, Ainhoa Arzelus eta Ander Arnaez zeraindar neska mutikoak Lehen Jaunartzea egin zuten Zeraingo Andre Mari Jasokundearen elizan.

Elizkizun berezi honetan, aspaldiko urteetan bertako serora izan den Florentzia Alustizari oroigarri bat eman zitzaion hainbeste urteetan egin duen lana eskertuz.

Tobera Musika Eskolako kontzertua

Tobera musika eskolako ikasleek, ikasturte bukaerako kontzertua emango dute Ekainaren 18an arratsaldeko 7etan Kultur-etxean. Entzun nahi duen edonor gonbidatua dago.

Eskursioa

Jubilatuaren urteroko eskursioa antolatuta dago jadanik, eta kostaldera joateko asmoa dago aurtan. Ekainaren 15ean larunbata, goizeko 9,30etan irtengo da.

Bertara joan duenak Udaletxean 943 801724 telefonon goizeko 10,30etatik

2,30etara izen eman behar du lehenbailehen.

Eskola Txikien festa

Eskola txikien festa aurtengoan Ereñozun izango da, ekainaren 9an. Goizean zehar eskola txikietako hurrek prestatuko antzerki, dantza e.a., ondoren bazkaria eta arratsaldez aurrentzak jokoak izango dira, egun osoan zehar eskoletako aurrek egindako eskulanean erakusketa egongo da. Zeraingo eskola txikiko hurrek era bertan parte hartuko dute.

Mari Flor Mendizabal



Lehiaketak martxan

Azken bi urtetako ildo jarraituz, Zegamako Udalak bi lehiaketa martxan jarri ditu: bata, San Bartolome jaietako programaren azala aukeratu asmoz, "Zegama" gaia duen Argazki Lehiaketa, bertan 180 eurotako saria dagoelarik, bestea berriz, Leiho-balkoi eta Lorategietako Lore Apainketa Lehiaketa. Hone-tan, 90 eurotako bi sari dau-de, bata leiho-balkoietako alorrean eta bestea lorategie-tako alorrean.

2002ko Argazki lehiaketa

2002. urteko San Bartolome jaietako programaren azala aukeratzeko asmoz, III. Argazki lehiaketa antolatu du Udal Kultur batzordeak.

Argazkiaren gaia Zegama da. Edonork parte har dezake lehiaketan. Argazkiak koloretan nahiz txuri-beltzean. Argazki muntaiak ere onartuko dira, baita argazki zaharrak ere. Gehienez 3 argazki aurkez daitezke.

Lehenengo hautaketa, Udal Kultur Batzordeak egin-gu du, hauek adituen laguntza izango dutelarik. Azken erabakia: Gobernu Batzordeak izango du.

Saria, 180 euroko da. Gobernu Batzordeak hala erizten badio, sariketa desertu ere gera daiteke. Argazkia osotasu-nean baloratuko da: teknika

aldetik, egitura, orijinaltasu-na, e.a.

Saritutako argazkia Uda-lak 2002ko Jai Egitarauaren azalean argitaratuko du. Gai-nerako argazkiak ere Uda-laren erabilerarako geratuko di-ra.

Argazkiak aurkezteko mo-dua: kartazal itxi batean, ar-gazki bakoitzari ezizen bat atzean jarri eta beste kartazal itxi batean ezizen horren identitate datuak sartu.

Argazkiak aurkezteko eguna: 2002ko ekainak 26.

Balkoi-leihoetako eta lorategietako 3. Lore-apainketa lehiaketa

Herriguneko ikuspegi osoa-ren txukunketan etxetik egin genezakeenaren garrantzia ikusirik, Zegamako Udalak etxeetako 3. Balkoi eta leiho-etako lore-apainketaren lehiaketa antolatu du. (Baserriak barne)

Aurten saria bereiztu egin da eta lorategi eta balkoi-leihoetakoak sarituko dira. Kontutan hartuko dena: barietatea, konposizioa, etxearen kokapena, baloratuko den epea: ekainaren 1etik abuztuaren 23ra.

Sariak: Leiho-balkoietako saria: 90 euro eta garaikurra. Lorategietako saria: 90 euro eta garaikurra. Sari banaketa San Bartolome eguerdian egingo da.

Aizkorriko Lagunen Eguneko bazkarirako izen-ematea irekita

Datorren uztailaren 7an Aizkorriko Lagunen III. Eguna ospatuko da Zegaman. Bertan Aizkorri bi mendi irteera izango dira, bata goizeko 6etan, ibilaldi hau Zegama bertatik Aizkorriko gailurreraino izango da, bestea berriz goizeko 7,30etan Sancti Spiritura izango da beste irteera bat, hau erritmo lasaiagoan izango da, Aizkorritik datozenekin bat egingo dute Meza ordurako (10:00). Meza ondoren hamaiketako izango da bertan eta Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia korritzen ari-tuko direnak paraje ikusgarri haretan ikusteko aukera izango dute.

Eguerdian, Lagunarteko bazkaria izango da Udal kirolde-gian, iaz 200 lagun elkartu ziren bertan, Edurne Pasaban eta Juanito Oiartzabal ere gure artean izan genituen guztion goza-menerako, aurten ere bazkarirako dagoeneko izenematea ireki-ta dago eta bazkariaren kostua 17 eurotako izango da. Izena emateko 943 801351 telefonora deitu behar da, (Edurne), eta epea ekainaren 30 arte da.

Tobera Musika Eskolak antolaturiko entzunaldiak

Ekainaren 15ean, goizeko 11etan Txistuko Entzunaldia izango dugu herriko plazan. Arratsaldeko 5etan berriz, Tobera Musi-ka Eskolako Kurtso bukaerako kontzertua San Martin Parro-kian izango da.

San Adrian eguna

Datorren ekainaren 16an, San Adriango Eguna Ospatuko da eta urteroko legez, Meza izango dugu San Adriango Ermitan. Ondoren, hamaiketako izango da Udalak eskainita.

Ostatua berriro martxan

Udalak obra garrantzitsuak burutu ondoren, bere ustiaketa jen-daurreko lehiaketara atera zuen eta datorren ekainaren 16an. Eneko Sorzabal eta Naiara Landazabal donostiarrek jarriko dute martxan. Zorte on!

San Joan bezperako afariak

Udal portikupean egiten diren afarietako izenematea Udale-txean egin behar da ekainaren 13tik 20ra.

Edurne Albizu

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



**Nafarroa
Etorbidea, 9**

EGUZKI
INPRIMATEGIA

☎ 943 88 94 82


BEASAIN

Artisau eguna igandean

Igande honetan, ekainak 9 ospatuko da artisau eguna Idiazabalen. 19 artisau arituko dira nola lan egiten duten erakusten Igarondo pilotalekuan. Goizean, 10:30etik 14.00ak arte egongo dira postuak zabalik eta arratsaldean 4,30etatik 7,30ak arte.

Arratsaldean, artisau eguna osatzeko, bi emanaldi izango dira plazan. 17:00etan Axari dantza taldeko neska-mutilen dantzak ikusteko aukera izango da. 20:00etatik aurrera berriz, Mikel Telleriak kontzertua eskainiko du. Idiazabaldarrak datorren astean kaleratuko du bere bigarren diska. "Zaldiak hartuta" izena du bilduma berriak (hurrengo alean xehetasun gehiago).

Hauek igandean Idiazabalen izango diren artisauak, tartean herritar bat ere bada: Xabier Arrieta (harri eta egur taila), Marcela Ramirez (kandelen taila), Fausti J (jantzi erreziklatuak), Mitxelo eta Joseba (kartoia), Zapatari (zapatagintza), Matxin (zume otargintza), Asun Esnal (bitxigintza), Eskuz (larrugintza), Maite Mujika (Idiazabal - pintura), Angel Ledo (damaskinatua), Lekutxu (egu-



rezko jostailuak), Argia Badago (beira puztua), Txaro Uribe (lore lehorrak), Edorta Murua (pitxiak), Idoia Ibañez (bolillo eta telarrak), Elena Txintxurreta (zeramika), Joseba Gastiain (alboka, xirulak), Aitor Gisasola (bitxigintza), Hiruki (zeta margotua).

Zaborrak errekan

Azkenaldian, errekan, ohikoa baino zabor gehiago agertu dela eta Udalak bandoa kaleratu du. Urtero, zabor bilketan 51 mila euro (8,5 milioi pezeta) gastatzen dituela ekarri du gogora udalak. Herrian



Parkea berrituta

Hiru hilabetez berrikuntza lanak egiten aritu eta gero, haurrak hasi dira berriro ere Jose Telleria parkean jolasean. Jostailu berriak jarri eta ingurua txukuntzen aritu dira lanek iraun duten bitartean. 45 mila euroko (ia zazpi milioi eta erdi) inbertsioa egin dute.

zaborrak biltzeko dagoen zerbitzuari muzin egin eta zaborra errekaratatzeko utzikeria eta zabarkeria beste arrazoirik ez du ikusten udalak. Bandoan herritarrei deia egiten zaie norbait zaborrak errekaratatzeko ikusiz gero Udalari jakinarazi diezaioten.

Regionalak, gora

Arizkorretan aritzen diren taldeek bukatu dute dagoeneko denboraldia. Regionalek, lehen mailara igotzea lortu dute. Taldea osatu eta lau urtera lortu dute igoera.

Jubenilek, bederatzigarren postuan bukatu dute liga eta datorren urtera begira taldeak aukera asko izan ditzakeela uste dute Kirol Elkarteko arduradunek. Jubeniletan gol

gehien sartu dituen Joan Berasategi izan da.

Kadeteek ezin izan diote lehen mailari eutsi. Iaz, lan asko egin ondoren lortu zuten igoera baina datorren urtean berriro ere beheko mailara itzuli beharko dute. Infantilek laugarren postuan bukatu dute denboraldia.

Zuberoa

Zuberoaren alde dirua biltzeko errifak salgai daude herriko tabernetan. 2 euroren truke erosi litezke txartelak. Uztailaren hasieran 500 euroko lau sari zozketatuko dira. Zuberoaren alde lanean ari den taldea, jaialdia antolatzen ari da ekainaren bukaerarako.

Xabier Urteaga

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN



AMEB
☎ 943 16 25 23
Zubierreka, 9
LAZKAO
Sagardotegia

Zortzi haurrek egin dute lehenengo jaunartzea

Aurtengoan herriko zortzi haurrek hartu zuten lehenengo jaunartzea, elizkizuna eguerdiko 12etatik aurrera herriko Ander Deunaren parrokiaren ospatu zelarik.

Parrokiko altarean izan ziren zortzi haurrak irrifartsu agertu ziren, benetan garrantzitsua den lehenengo jaunartze eguna pozez gainezka bizi izan zutelarik. Lehenengo Jaunartzearen ospakizuna haurrek alaituriko giroan ospatu zen; haurrentzat eta orokorrean parrokiarentzat Lehenengo Jaunartzearen ospakizuna Bataio eta Sendotza elizkizunekin batera, urtean zehar ospatzen diren elizkizunen artean garrantzitsuenetakoa da.

Aurtengoan lekuko hori hartu zutenak lau neska eta lau mutil izan ziren. Hain zu-

zen, Laura De Carballo, Irene Gilabert, Mikel Goitia, Amaia Perez de Albeniz, David Perez de Albeniz, Joanes Mujika, Gorane Yurrita eta Haritz Urkiola izan ziren lehenengo jaunartzea egin zutenak. Aipatu hurrez gain beraien taldekidea den Aizpea Lasak orain egun batzuk Ezkio-Itsasoko, Itsasoko parroki elizan, bere lehenengo jaunartzea egin zuen.

Igandekoa Ormaiztegiko parrokiarentzat egun pozgarria izan zen. Haurrek egun alaia igaro zuten beraien senditarteko, hezitzaile, lagun eta herritarrez inguratutik. Lerro hauetatik beraien pozarakin bat egiten dugu bihotz-bihotzez zorianik beroena bidaliz.



San Joan ospakizunak

Hurrengo alean San Joan ospakizunei buruzko egitarau zehatzagoaren berri jasokobada ere aurrerapen gisa ohi bezala herrian hainbat ekitaldi izango direla jakin arazi nahi da. San Joan bezperan herriko haurrek prestatzen ari diren San Joan suaren piztea eta herrigunean tantaia jartzea izango dira ekitaldirik nagusienak. Guztia trikitixa eta musika giroan izango delarik.

Haurrentzat udaleku irekiak

Aurrerapen gisa ere adierazi nahi da aurreko urteetan bezala aurten ere uztailean haurrentzat udaleku irekiak antolatuko direla. Udalekuak uztaileko lehen hamabostaldian izan ohi dira goizeko ordutegian. Izenemate, ordutegi, adin eta gainontzeko gaiei buruz argibide gehiago hurrengo alean emango da.

Aitziber Murua

Jaunartzeak

Ekainaren 3an herriko hiru neska-mutikok, Jon Ander Insaustik, Miren Mujikak eta Peio Olaberriak, lehenengo jaunartzea egin zuten herriko Mikel Goiangeruaren elizan.

Eguraldia lagun izan zutela familiarteko eta lagun ugari hurbildu ziren egun horretan herrira eta egun ederra igaro zuten.

TVE sintonizatzeako

TVE-1 sintonizatzeako tokia aldatu egin dute. Lehen VHF-8an sintonizatzen bazen, orain UHF-49an. Azken aldihonetan herriko etxe dezentetan gaizki ikusten zen eta hau izan da arrazoia. Beraz, bakoitzak bilatu beharko du sintonizatzeako berria.

Medikuaren oharra

Ekainetik iraila bitartean, 14:00 ordutik aurrerako larrialdietarako Beasaingo Osasun Zentroarekin ipini behar da harremanetan, 943027700 telefonora deitu behar da horretarako.

Iñaki Ugalde



Ekitaldi ugari asteburuan

Era guztietako ekitaldiak izango dira asteburu honetan. Jarraian dituzue, banan-banan:

Gimnasia erritmikoa eta judoa

Bihar larunbata, ekainak 8, arratsaldean, 17:00etan, herriko gaztetxoan tarte izango da. Gimnasia erritmikoa eta judo erakustaldia izango da, Harripila kiroldegian.

Bertso saioa

Gauean, hau ere ekainaren 8an, Bilkoin elkarteak antolatutako bertso saioa izango da Herri Zinemaren. Joxe Agirre, Amets Arzallus, Jesus Mari Irazu, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi izango dira bertsolariak. Gai jartzailea, berriz, Joxe Mari Agirre 'Txato'.



II. Dantzari Txiki eguna

Igandean, ekainak 9, II. Dantzari Txiki eguna ospatuko da. Beasaingo Aurtzaka, Zaldibiako Iztueta eta Legorretako Irrintzi Alai taldeetako dantzariak izango dira herrian.

Eguerdiko 1,30etan, dantzari guztiak herriko enparantzan bilduko dira eta zenbait dantza saio ikusteko aukera izango da.

Arratsaldean, 17:00etan, euskal dantza erakustaldia izango da, Harripila kiroldegian.



Udalekuak 10 urtetik gorakoentzat

Uztaileko bigarren astean, 8tik 14ra, udalekuak izango dira herrian, 10 urtetik gorako gazteentzat. Beñat Zudaire, Aitor Berrondo eta Aitziber Sarasola izango dira udalekuen arduradunak.

Udalekuak, nahasiak izango dira; irekiak eta itxiak.

Hau da, uztailaren 8an eta 9an ekintzak Olaberrian burutuko dira eta 10ean, udalekuetako gazte guztiak Nafarroako Aritzaleku kanpinera joango dira, uretako zenbait ekintzez gozatzeko asmoz. Esate baterako, Quad probatzeko aukera izango dute.

Pintura lehiaketa sarituak

Maiatzaren 25ean jokatu zen I. Pintura lehiaketa. Hamaika margolarik hartu zuten parte. Sarituak ondorengoak izan ziren: lehenengoa Arrasateko Mila Garmendia; bigarrena, Gasteizko Koldo Gojenola eta hirugarrena, Esteban Oroz.

Udalekuetan parte hartzea 60 euro kostatzen da. Hori bai, familia batetik bi partaide izanez gero, bakoitzak, 48 euro ordaindu beharko ditu, eta hiru izanez gero, 36 euro.

Ekainean begiraleek bilera egingo dute parte hartzaile guztiekin. Eguna oraindik zehaztu gabe dago. Informazio gehiago lortu edo izena eman nahi izanez gero, 943164084 telefono zenbakira deitu eta Ana Mariz galdetu.



RENAULT
AGENTZIA

LAZKAO
GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO



GESTORIA BIOK
Errenta
aitorpenak
egiten dira

Goierri, 12
behea
ORDIZIA

☎
943 88 44 00
943 88 12 58

Infantil mutilak, EAEko txapeldun

2001/02 ikasturtean, Lardizabal eskolako ikasleak eta Zaldibiako taldearen izenean jotzen ari diren DBHko ikasleak hainbat kirol landu dituzte ikasturtean zehar: areto futbola, saskibaloia, pilota... Datorren alean kontu honen berri zehaztapen gehiagorekin emateko asmoa dugunez, Zaldibiako infantil mutilek lortutako erronkaren berri emango dizuegu. Maiatzaren 18an D.Schule eskola alemaniarri penaltietan irabazi ondoren, Gipuzkoako txapeldun atera ziren Zaldibiako mutilak. Hala, maiatzaren 25ean eta ekainaren 1ean Gasteizen jokatu ziren Euskadiko Jokoetan parte hartze-ko txartela eskuratu zuten. Baina ez zuten parte bakarrik hartu, izan ere, txapeldun atera eta Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) ordezkari gisa Extremadurara joango dira irailaren 15etik 21era.

Infantil nesketan berriz, Extremadurara Euskal Autonomi Erkidegoko ordezkari moduan ez dira neska zaldibitarak izango, baina aipagarria da esatea Gipuzkoako finalera iritsi zirela. Han Tolosako Laskorain ikastolako

nesken aurka galdu zuten (2-1) eta azken hauek izango dira Espainia aldera joango direnak. Beraz, lerro hauetatik Zaldibiako neska-mutilak zorriondu nahi genituzke egin duten denboraldiagatik, eta zer esanik ez, baita lanean aritu diren monitore guztiak ere.

Udako jarduerak

Uztailean zehar, haurrentzat eta gaztetxoentzat hainbat jarduera izango dira. Txikienekin egiten diren jardueraz gain, hipika, piraguismoa, tenisa, aerobika... izango dira. Hauetako jarduera baten parte hartu nahi duenak Kultur Etxean eman beharko du izena.

Antzerki saioa, ekainaren 21ean

Ramon Agirre aktore ezagunak prestaturiko azken antzezlanak ikusteko aukera izango da Antzokian gaur hamabost. "Ondo esan beharko" izena du obrak eta harrera ona edukitzen ari da gainontzeko antzokietan.

Jubilatuaren irteera

Ekainaren 18an, Beti-Gazte elkarteak antolatutako, egunpasa izango dute jubilatuek, Azpeitira eta Zarautza. Bazkaria Zestoako Arozena jatetxean egingo dute. Irteera goizeko 9etan izango da. Txartelak, larunbatetik, ekainaren 8tik, aurrera egongo dira salgai.

Iñaki Gurrutxaga

Saroi Jauregi



Goian, ezkerretik eskubira: Eneko Gantzarain, Ion Ordozgoiti, Xumai Matxain, Xabat Otegi, Jurgi Saiz, Orkatx Gorrotxategi eta Iñaki Irastorza.

Behean, ezkerretik eskubira: Iñigo Garmendia, Oier Irastorza, Hodei Irastorza, Mikel Nazabal, Mikel Gantzarain eta Iñaki Gantzarain.

Uema Eguna igandean Lekeition

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) urteroko festa ospatuko du igandean honetan, ekainak 9, "Bai! Euskaraz bizi gara!" lelopean. Dakizueenez, Zaldibiako Udala erakunde honetako kide da eta horrexegatik, Lekeitiona joateko deia luzatzen du. Goizean goizetik emango zaio hasiera festari; ekitaldi instituzional eta publikoaren ondoren, herri bazkaria izango da eta gero ur jolasak. Tapia, Leturia eta Patxiren erromeriak itxiko du festa.



Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

943 88 77 26

ALTZAGA



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA

Ekainak 9, Renault Garaje Lazkao saria

XXXVIII. Ataun San Martin txirrindulari proba

Elite eta 23 urtez beherakoan XXXVIII. Txirrindulari lasterketa korrituko da Agauntza Kirol Elkartek antolaturik datorren igandean. Goizeko 9etan emango da irteera San Martingo plazatik eta eguerdia pasatxo (12:18-12:28, abiaduraren arabera), amaituko dela kalkulatu dute antolatzaleek. 135,5 kilometro izango dituen ibilbideak gora-behera handiak ditu eta, esan bezala, San Martingo plazatik irten eta Goierrin zehar ibiliko dira txirrindulariak.

Lehen bira egin ostean, 42,5 kilometroren buruan pasako dira Ataundik lehendabizikotz, 10:00ak inguruan. Urkillaga igo, mendi saria jokatuko da bertan eta jaitsi ondoren, Lazkaotik Iurrerantz abiatuko dira, hemen norabidez aldatuta, Ikaztegiatarantz abiatzeko. Alegiko bariantetik, Amezketara, Abaltzisketatik Larraitzeko gainera joko dute, hemen bigarren mendi saria izango delarik jokoan. Larraiztik, Zaldibiara jaitsi eta Ordizian N-1a hartu eta Atauna itzuliko dira, 11:35-11:45 inguruan. 106 kilometro eginak izango dituzte ordurako eta indarrak atera eta San Gregorio, Ergoiena zeharkatuz Aiara igo eta Urkillagako gainean (Mendi saria) izango dira 12ak inguruan.

Berriro, behera itzuli eta Lazkao herria igaroz, Olaberriko gainera igoko dira (Mendi Saria). Hemendik Iurre, N-1 Beasainerantz eta Lazkaoko bariantetik, helmugarako azken sprint-a izango dute jokoan. 26 taldek parte hartuko dute. Horien artean izango da Caja Rural ere eta noski, Dioni Galparsoro ataundarra.

Aurtengoan nork irabaziko duen ez badakigu ere, nahiz eta denon gogoan izango den herritarra, esan behar da, azken 21 urteetako palmaresean badela geroago ezagun eta ospetsu bilakatu den txirrindularirik. Hala nola, 1981. urtean Julian Gorospe izan zen garaile; Jokin Mujika 1983an; beste itsasondoar ezagun batek, Aitor Garmendiak irabazi zuen 87.ean; Aitor Osak 1994.ean eta azken bi urteetan, Xabier Florencio eta Aitor Perezek, hurrenez hurren. Espero dezagun aurtengoan zerrenda luze horri hain denboraldi bikaina egiten ari den Dioniren izena gehitzeko aukera izango dugula. Gure animoak zurekin dituzu behintzat, Dioni. Zorte on!

Agurtzane Bikuña

Otso festa 2002

Ekainak 8, larunbata:

19:00etan: Jaialdia Herri Antzokian: Herriko musika ikasle eta Otsoak dantza taldea.



Ekainak 14, ostirala:

22:00etan: Antzerkia, Herri Antzokian: Hau ParADEROA!

Ekainak 16, igandea:

13:00etan: Zaharkinaren inaugurazioa. Erakusketa ekainaren 16tik uztailaren 14ra izango da.

Ekainak 21, ostirala:

21:00etan: Bertso eta kantu afaria, Bittor Jatetxean.

Ekainak 22, larunbata:

22:00etan: Kontzertua, Herri Antzokian: Urtz.

Ekainak 23, igandea:

Gauean: San Joan suak auzo guztietan.

labur-labur

● Larunbat honetan, ekainak 8, Ibarako lau gazteren eskutik, **diapositiba emanaldia** eskaintzekotan dira Oargin. Xehetasun gehiagoren berri herriko tabernetan jarrita dauden karteletan izango duzue.

● Joan den maiatzean ospatu zituzten **urrezko ezteiak** Joakin Aizpuru eta Valeriana Begiristainek. **Zilarrezko ezteiak**, berriz, Karmelo Urdangarin eta M. Jose Aizpuruak. Berandu xamar bada ere, urteaskotarako lauroi eta jarraitu horrelaxe urte askoan. Bestalde, barkamena eskatu, izan ere berri hau aurreko zenbakian irtetekoa zen eta azken orduko hutsegite teknikoak medio, agertu ez zelako.

● Azken bi asteotan ospatu dira herriko haurren lehen jaunartzeak ere. **7 jaunartze** izan dira aurtengoan, 4 San Martinen eta 3 San Gregorion.

● Joan den astean hil zen **On Segundo Dorronsoro**, Beasainen ia 30 urtez apaiz egon zen San Gregoriotarra. Dolu-minak sendiari.

● Jakin badakigu, joan den larunbatean, Aiako Haitzarri K.E.n **“Ardoa ezagutzeko kata”** saioa izan zela, herriko elkarteek eta Udalak antolaturik. Joateko aukerarik ez genuen izan baina datorren zenbakian izango dugu horren berri zabalagorik.

Babes Ofizialeko 40 etxebizitzaren lehen sustapena

Udalak bultzaturik, Babes Ofizialeko 40 etxebizitza eraikitzen doaz Indar lehen kokatua zegoen lekuan. Orain hilabete batzuk Udalak Beasain Lantzen, SA udal-sozietatea sortu zuen, etxebizitzak, bizitegi eta industriarako lurzorua, pabilioiak eta abar hirigintzaren alorrean kudeatzeko tresna gisa. Etxebizitza hauek erosteko hautatuak izaten direnek kooperatiba bat eratu beharko dute BOEko 40 etxebizitza hauek eraikitzeke.

Interesatuak baldintza hauek bete beharko dituzte: Beasainen erroldatuta egon 2000-1-1 baino lehen; azken bi urteetan etxebizitzaren jabe ez izatea; 9.015 euro eta 33.056 euro arteko urteko diru-sarrerara haztatuak izan behar dira.

Neurri desberdineko etxeak izango dira: 2-3 gelakoak,

sukalde, egongela, bainugela, trasteleku, batzuek garaje eta guzti. Prezioak, 8-15 milioi bitartekoak izango dira.

Ekainaren 10etik 24era aurkeztu beharko dira eskararak. **Ekainaren 25tik uztailearen 1era**, onartutako enpresa Udalaren bulego orokorretako iragarki-taulan egongo da ikusgai.

Uztailaren 4tik 15era. Alegazioak aurkezteko epea zabalduko da. **Uztailaren 22tik 29ra**, onartutako eta baztertutako eskatzaileen behin betiko zerrendaren jendaurreko erakusketa. **Irailaren 16tik 30era**, notario aurreko zozketa publikoa.

Etxebizitzak gutxi gorabehera 2 urteko epean entregatuko direla aurreikus daiteke.

Nekane Altuna

Bastida-Beasain: kultur trukea

Igandean, ekainaren 9an, Bastidara irteera egingo da Arrano Kultur Elkarteak antolatuta, 'Gure kultura lantzen' lelopean. Beasaingo bertsolari, trikitilari, txalapartari, dantzari eta herrikirolariak Bastidan izango dira. "Guztiok ere bat izanik, herrialde bakoitzak bere kultura dauka eta bi herrialde ezberdinon arteko kultur trukea egin nahi" dute Arrano Kultur Elkartekoek. Aurrera begira ere urtero beste herriren batekin horrela elkartrukea da AKE-koen helburua.

Igande honetarako prestatu duten egitaraua hauxe da:

9:00etan: Autobusa irtengo da Erauskin plazatik (helduek 6 euro eta langabe eta ikasleek 3 euro).

10:30ean: Elkartzea, Bastidako plazan.

12:30ean: Bertsolari, txistulari, txalapartari, trikitilari, dantzariak eta herrikirolak. Plazan.

15:00etan: Bazkaria (9 euro), pilotalekuan.

Autobuseko eta bazkariko txartelak ekainak 7 baino lehen erosi behar dira Arrano tabernan.



Aizkorriko bira

Aizkorri Mendi elkarteko arduraduek gustura geratu ziren ekainaren 2an egin zen I. Aizkorriko birarekin, behin irteerako jende pilaketak eragin zuen nahasmen eta urduritasuna gaintitu ondoren. 279 mendizalek hartu zuten parte eta 245 izan ziren helmugara iritsi zirenak. Gehienek 11-12 ordu inguru behar izan bazituzten ere ibilbidea osatzeko, 6 ordu eta 13 minutuan bukatu zuenik ere izan zen. Beroa izan zen nagusi eta antolatzaileek aurreikusitako 2000 ur botila gutxi izan ziren egarria asetzeko, 3000 ur botila banatu zituzten azkenean. Mendizale guztien ahotan, ibilbidearen edertasuna izan zen aipagai.

Musika eskolako kontzertuak

Kurtso amaiera dela eta Loinatz Musika eskolakoez kontzertu sorta antolatu dute ekainerako. **Ekainaren 13an**, Udaletxeko Batzarre Aretoan 19,30etan. Ruth Zudaire, Nerea Garcia, Anaia Cobos, Loinaz Fernandez eta Unai Saldiasen, Vivaldiren eta Euskal herriko doinu herriko batzuk joko dituzte gitarrarekin. Garazi Zabaleta pianoa jotzen eta Raul Cobos eta Maria Amolategi saxofoi eta piano bikotea osatuz arituko dira jarraian eta Aitor Arana berriz akordeoiarekin. Trikitixa, perkusioa, klarineta... bezalako instrumentu ezberdinak entzuteko aukera izango da. **Ekainaren 20an**, Usurbe Antzokian 19:30ean. Beste batzuen artean, Alfredo Pelaez, Iker Urretabizkaia, Iker Gomez, Debora Herrero, Victor Sanchez, Ariz Alonso eta Victor Lozano instrumentu desberdinak jotzen ari tuko dira. **Ekainaren 22an**, Loinazko San Martin Plazan 19:30ean. Musika Eskolako bandak kontzertua eskainiko du.

Liburutegiaren udako ordutegia

Ekainaren 17tik iraila bitarte goizez bakarrik irekiko du atea. 9etatik 13:30era hain zuzen ere. Era berean gogoratu, Ezkiagako Ludoteka itxi egingo dela uda dela eta ekainaren 14tik aurrera. KZ gunea irekirik egongo da ekainean eta uztailean.

Odol ateraldia

Odol Emaileen Ordezkaritzak jakinarazten du, ekainaren 11n egingo dela odol ateratzea Urbi-etxeko lokalean, arratsaldeko 6etatik aurrera. Ohiko emaileez gainera, berriren bat animatzen bada, bertara azal dadila.



Udako kirol kanpaina abian

Tenisa, aerobika, edo piraguismoa besteak beste. Hauek dira Lazkaoko Joxe Migel Barandiaran kiroldegia udako kirol kanpainarako eskaintzen dituen aukeretakoz batzuk.

Kanpaina ekainaren 24tik uztailaren 19a bitartean luzatuko da eta eskolame nahiz helduei zuzendurik dago. Izan ere, uda ez da kirolik ez egiteko aitzakia. Hori bai, helduak zein haurrak talde ezberdinetan banatuko dira bakoitza bere mailakoekin ibil dadin. Horrela, txikienei igeriketa edo kirol anitzeko ikastaroa izango dute auke-

ran. Helduagoek berriz aukera zabalagoa dute: igeria, saskibaloia, tenisa, piraguismoa, eskalada, mendiko bizikleta edo aerobika. Arku tiraketa edo irristaketa ikasi nahi dutenek ere aukera izango dute aurtengo udako kirol kanpainaren barnean.

Animatu nahi dutenek ekainaren 3 eta 16 bitartean eman behar dute izena Lazkaoko Joxe Migel Barandiaran kiroldegian. Bertan izango dituzue ikastaro hauen inguruko argibide guztiak ere.

Oihana Sarasola



Musika ikasketei hasiera emateko izen ematea

Ikasturte amaiera gerturatzarekin batera, asko eta asko dira hurrengo urtean zer egin edo zer ikasi pentsatzen jarduten dutenak. Musika ikasten hastekotan dabilenak oraintxe du aukera: Lazkaoko musika eskolan hurrengo ikasturterako izena emateko epea zabaldu da. Trikitixa, gitarra, panderoa edo hezkuntza musikala beste aukera askoren artean Lazkaoko musika eskolak eskaintzen dituenak. Eta adin edo maila mugarik gabe; edozein adinetako (haurrak zein helduak) jendea onartzen da bertan, eta baita ezer ez jakin eta ikasten hasi nahi duenetik maila jakin bat duen musikariarengana ere. Musika instrumentu bat jotzen ikasteko gogoia baina ez dute eskatzen.

Izena eman nahi duenak ekainaren 19a baino lehen gerturatu behar du San Benito ikastolako musika gelara. Astelehen eta asteazkenetan, arratsaldeko 5etatik 7etara bitartean, bertan izango da Nerea Barandiaran arduraduna izenak hartzeko.

Bien bitartean, aurtengo musika eskolan ibili diren ikasleek kontzertua eskainiko dute ekainaren 14an Maizpide euskaltegian. Sarrera dohainekoa izango da eta bertan urtean zehar egindako lana erakutsiko digute musika ikasle hauek.



VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

KAFEA TXIGORTZEN DUGU



KAFE eta TE denda

Santa Maria kalea 19
Tel: 943 88 12 80 ORDIZIA

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATE-
AK eta abar
✕ ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

Araba Errioxako ardoaren X. astea

Ekainaren 10etik 16ra, Arabako Errioxar ardoaren astea ospatuko da. Inoiz baino lehen dator gainera astea, aurreko urteetan azaroan egin izan ohi baita. Asteaz, ardoarekin zerikusia daukaten gaiak jorratuko dira Barrenan, hitzaldietan. Dastatze ikastaroak ere egingo dira, upategi ezberdinen ardoen dastatzea erekin batera.

Ekainaren 10ean, dastaketari buruzko jarduna izango da Mikel Garaizabalen eskutik. Ekainaren 11n, 12an eta 13an, upategi ezberdinetako ardoen aurkezpena egingo da. Ekainaren 14an, Mikel Garaizabalen 'Euskaraz dastatu' jardunaldia izango da.

Hitzaldi praktikotik plazaratu direnez, aurrez izena eman behar da Barrenan. Telefono zenbakia: 943805630.

Azoka

Asteburuan, ekainaren 15ean eta 16an, Arabar Errioxaren azoka izango da Garagartza plazan, 12:00etatik 14:30era eta 18:00etatik 21:30era. Larunbatean, 11:30ean, zabalduko dira ofizialki, ardo erakuspostuak.

Azokan parte hartzen duten ardogileen dastaketa-lehiaketa ere egingo da. Jarraian aipatuko diren upategiak etorriko dira: Roberto Miguel Blanco, Covilla, Señorío de las Viñas, Heredad Guzman de Aldazabal, Heredad de Aduna, Doroteo Saez de Samaniego, Azpillaga Uriarte, Araico, Julian Salazar, Ibañez Bujanda, Viña So-kaire, Medrano Irazu, Landa-luze, Garcia Olano, Heredad de Baroja, Heredad de Berganzo, Markiegi, Luis Cañas, Bodegas Pavoni, Alcalde Lopez.

San Joan sua

Uda gerturatzen ari zaigula eta honekin batera baita San Joan bezperako suaren inguruan egin beharreko dantza. Hau dela eta, antolatzaileek aipatu dantzan parte hartu nahi duten guztiei deia luzatu diete ekainaren 7an arratsaldeko 8etan Santa Ana ikastetxera hurbildu daitezen. Bertan entseguak egingo dira.

Kantaldia

Eta nahiko dantza egin ondoren, ilutzeko 10,30etan kantaldia izango da "Nekin" taldearekin. Herrikoa Tabernan izango da kantaldia eta Irriki Kultur Elkarteak "kafe usaina"ren ekintzen barruan antolatuta du ekimena.

Kafe-kontzertua

Poltsikoko ikuskizunen barruan, berriz, Cadence Trio taldeak kafe-kontzertua eskainiko du Barrenan (Jazz, bossa, boleroak...) iluntzean.

Kolonbiako berriak

Ramon Arizmendi Garmendia ordiziarraren izena denon ahotan izan zen joandako astean. 58 urteko Ramonek 20 urte baino gehiago daramazki Kolonbian eta maiatzaren 11n bahitu egin zuten FARC (Fuerzas Armadas Revolucionarias de Colombia) taldeko gerrillariak. Aste pare batez eduki zuten bahituta eta azkenean maiatzaren 26an utzi zuten aske.

Kontenedore modernoak

Enparantza Nagusiko lanak ia amaituta dauden honetan (Kale Nagusiari dagokio hurrena txanda) birziklairako kontenedoreak jartzen ari dira orain. Baina orain arte bezala denon bistan egon ordez, lurrazpian ipiniko dituzte. Honek espazioa hobeto aprobetxatzea dakar berarekin eta era berean, estetikoki ere onurak besterik ez ditu ekarriko. Piskanaka-piskanaka herri guztietan ipintzen joango dira honelako kontenedoreak.

Tuneleko obrak

Ekainaren 14rako Upabiko tuneleko lanak amaituta izango direla adierazi dute laneko arduradunek. 1993ko abuztuaren ireki zen tunel hau eta harrezkeroztik 4 aldiz itxi behar izan dute arrazoi desberdiak medio. Gauzak honela, behin-betiko arazoekin amaitzeko hormigoia eransten ari dira hormetan. Esan bezala hemendik gutxira Beasaindik Ordiziara datorren Upabiko tunela irekita egongo da berriro ere garraio-bideentzat.

Aitor Calvillo

Saskibaloitxapelketa

Lagunarteko saskibaloitxapelketan parte hartu nahi duten herriko koadrilek ekainaren 14a bitartean izango dute izena emateko aukera. Olano Tabernan edota Majori Kiroldegian egin beharko da berau eta OKE saskibaloioek espero dute ekainaren 17an bertan hasia, betiere estaligabeko pilotalekuko kanastak konponduta egongo direlakoan ordurako. Aipatu izenematea doakoa dela eta iaz 22 taldek hartu zutela parte.

Final laurdenak

Saskibaloitxapelketa hastear dagoen honetan, futboleko finalaurdenetan da jada. 12 taldek eman zioten hasiera lagunarteko XXIII. Futbol txapelketari eta 8k darraite aurrera. Tximista Sagardotegia-E.R.Matxain Ileapaindegia, Urbitarte Sagardotegia-Vicuña Sport, Badago-Ferro eta Bustunmira-Irrintzi, horiek izango dira fase honetako neurketak. Bi partidu jokatu beharko dituzte elkarren artean eta irabazleek ekainaren 29an jokatuko dituzte finalerdiak. Finala uztailaren 7an jokatuko da eta ondoren, betiko ohitura legez, bazkaria egingo da pilotalekuan txapelketan partet hartu duten jokalariek guztien artean.

Ondarearen erabilerarako plana

'Xabide' kultur kudeaketa eta komunikazioa enpresaren birtarte Ardiarra etxearen eta herriko ondarearen erabilera aztertuko duen plan estrategikoa prestatzen ari da Udala. Urte amaierarako espero da prest egotea eta ondoren onartu egin beharko litzateke.

Eskolarteko txapelkunak

Udaberriko txapelketaren barne bi urrezko domina lortu zituzten Laiotzeko neska benjaminek maiatzaren 24an Ordizian: 600 metrotan, Leire Arrieta izan zen irabazlea; errelebotan garaile geratu zen Miren Mujikak, Nagore Ormazabalek, Laida Alustizak eta Leire Arrietak osatutako taldea.

Labur-labur

● Udan Oxiña igerilekuan lan egiteko izenak ekainaren 10erako eman behar dira. Informazio gehiago udaletxean (943801006).

● Pasa den maiatzaren 25ean Udalak eta Euskal Herriaren adiskideen elkarteak Salamancako unibertsitateko katedradun **Luis Sanchez Grangel** herriko semea omendu zuten.

● Hilerriko berrikuntzak amaitu ondoren, **hilerrirako lehenengo barne araudia** osatu eta onartu du Udalak. Ondoren, herritarrek emendakinak egiteko epea zabalduko da.

● Itturriberialdeko txukunketak. Arbolak landatu eta belar hazia botatzeaz gain, itturriberriko eskailerak, pareta eta baranda pintatu egingo dira eta kaltzadara eramaten duen bidea egokitu da.

● Txanbolinpe berritu. San Joanak aurretik Txanbolinpe-

Buruhandi eta erraldoiak ala erraldoi eta buruhandiak

Gai honi buruzko erreflexioa planteatu du Joxemari Telleriak

40 urte badaramatza Joxemarik txistulari lanetan erraldoi eta buruhandiei laguntzen herrian festaren bat den bakoitzean. Erraldoi eta buruhandien zentzua erabat aldatua dugu gure herrian Joxemarik dienez. Erraldoia, izenak dioen bezala, gainerakoak baino askoz ere handiagoa dena da. Festetako erraldoiak, handitasun fisikoarekin batera, maila intelektual, jerarkiko edo mitologiko gorrena adierazten du. Hortxe dago, Joxemariaren ustez, buruhandien izateko arrazoiak: erraldoiak babestea.

Txistulariak, erraldoiak eta buruhandiak, guztiak elkarrekin ateratzen badira ere, erraldoi eta txistulariek betiko kalejira egiten dute, Germanenen, Kale Nagusitik goira bolalekun, plaza parean

eta plazaren beste aldean geldialdia eginez eta fandangoa eta arin-arina dantzatzu. Buruhandiak, berriz, ia ikusi ere ez dituzte egiten, dio Joxemarik. 1970 inguru arte, buruhandiak erraldioen inguruan ibiltzen ziren ibilbideko lau geldiuineetan erraldoiengana gerturatzen ziren elka-

rrekin dantza egitera. Hori orain ahaztua dago.

Orain ez da erraldoi eta buruhandiak esaten, buruhandi eta erraldoiak baizik. Buruhandiak erraldoiak baino garrantzitsuago bihurtu dira. Konpartsa izatetik protagonista izatera pasatuz.



Erraldoiak eta txistulariak Germaneneko geldialdian dantza egin ondoren.

● Euskal presoen sakabanaketaren aurka hileko azken ostiraletan kontzentrazioak egingo dira, iluntzeko 8etan plazan. Antolatzailea: Etxerat.

● Aizkoeta taberna, gaur, ostirala, zabalduko da berriro, poteo garaian, 4 hilabetetan insonorizazio eta berritze lanetan aritu ondoren.

Joseba Telleria



Udalak Nestor Basterretxeari eskultura eskatu zion eguna.

Nestor Basterretxearen eskultura

Euskadiko Dantza Txapelketaren 25 urte hauetan txapelketari berari eta herriari egindako ekarpenagatik, Udalak bere esker ona azaldu zion Nestorri urtarilaren 26an. Bertan, besteak beste, herrian kokatzeko eskultura lana eskatu zitzaion. Dagoeneko, eskultura izango denaren maketa egina du eta gaur, XXVI. Dantza Txapelketarekin batera aurkeztuko dute Dr. Camino liburutegian, 12:30ean.

Erein argitaletxearen eskutik, Patxi Zubizarreta: Usoa sail berriaren sortzailea

Patxi Zubizarretak 1999an sortu zuen **Usoa** pertsonaia. Arrakastatsua izan da Afrikatik Europara bidalitako neskatoaren istorioa. Erein argitaletxean, **Usoak**, bilduma propioa izango du, **Patxi Zubizarretaren** istorioz eta **Elena Odriozolaren** marrazkiz osatua. **Istori**o ezberdinetan murgilduko da **Usoa**, haur eta gaztetxoek gozamenerako.

1999. urtean argitaratu zuen Patxi Zubizarreta ordiziarrak 'Usoa' ipuina. Gurasoek Afrikatik Europara bidali zuten neskatoaren kontakizuna egiten zen bertan. Arratsalde batean hasi eta bukatutako ipuina zen. Arrakasta handia lortu zuen 'Usoa'-k, baita Euskal Herriko mugetatik kanpo, katalanera eta gazteleara itzulua izan baitzen. Maria Zamakola zinegileak ere zinera eraman zuen 'Usoa'-ren istorioa. Euskaldunon Egunkariaren 'Xingola' atalean Usoa protagonistaren istorio berriak sortzeko aukera izan du Patxi Zubizarretak, beti ere Elena Odriozolaren marrazkiez ilustratua. Orain,



ordea, 'Usoa' neskatilaren bizitza gehiago luzatuko da, Erein argitaletxeak Patxi Zubizarreta eta Elena Odriozolaren esku sortu duen 'Usoa' sailari esker.

Maiatzaren 29an, Donostian, aurkeztu zen 'Usoa' sai-

la. Bi liburu edo istorio aurkeztu ziren, Euskaldunon Egunkariaren argitaratutakoak biak ere: 'Lehen Kanpamendua' eta 'Zelatan'.

Ordiziarrak garbi utzi zuen aurkezpenean, bigarren zatien aldekoa ez dela izan se-

kula. Baina gustura dago emaitzarekin. Hurrengo bi istorioak ere prest dituzte, udazken aldera argitaratzeko.

Zubizarretak adierazitakoaren arabera, euskal literaturan ez dira idazle asko protagonista bera duten istorio bilduma egin dutenak.

Usoa definitzen

Usoa neskaitila definitzen doa pixkanaka-pixkanaka. 'Usoa' filmaz baliatu dira Zubizarreta eta Odriozola. Bertako pertsonaiak hartu dituzte, bertako elementuak ere bai.

Erein argitaletxeak 'Usoa' filmaren kopiak egingo ditu bideo formatoan. Ikastetxetara bidaliko da liburuen osagarri izan dadin.



Usoa. Lehen kanpamendua

Usoa bere lehen kanpamendura doa, Irati lagun minarekin. Suaren inguruan eseri nahi dute, eta neska-mutil gehiago ezagutu, eta, agian, musuren bat eman edo jaso. Aspaldiko lapur batzuen altxorra ere aurkitu nahi lukete. Baina ezin dute inondik ere imajinatu gauza horiek guztiak baino askoz gehiago dituztela zain (pertsonaia harri-garriak, desagerketak, lapurretak), eta lehen kanpamendu hori ezin izango dutela inoiz ahanzi.

Usoa. Zelatan

Irati, Usoaren lagun mina, ez da betiko Irati. Arraro baino arraroago dabil azken boladan. Ikasturte hasiera ere oso gorabeheratsua gertatu zaie. Horregatik guztiagatik erabaki du Usoak, Manexekin batera, Irati zelatatzea: bitxi batzuekin zer egiten duen jakin nahi dute, edo zer gertatzen zaien haren gurasoei, edota, azkenik, zertan dabilen mutil ezezagun batekin... Eta hori guztia jakin bitartean, ustekabea, Manex Usoaren lagun mina bilakatuko da.



Dioni Galparsoro eta Aitor Perez txirrindulari afizionatuak: "Helburua ez da profesionaletara igotzea soilik, profesionala izan eta zerbait egitea baizik"

Denboraldi bikaina ari dira egiten Dioni Galparsoro eta Aitor Perez, txirrindulari afizionatuak. Profesionalen bizitza daramate eta mailaz igotzea dute aurtengo helburu. Baina, lortzen ez badute, beste guztiak bezala lanean hasi beharko dute, baina, helburua lortzeko ahalegina egin dutela jakinik.

Oso denboraldi ona ari dira egiten Dioni Galparsoro eta Aitor Perez. "Batez ere Dioni oso erregularitasun handiarekin dabil denboraldi osoan eta Nafarroako itzulian irabazteko zorian egon da, gainera ikusi da mendia eta, bera izan dela indartsuena", dio Aitorrek.

Nafarroako itzulian irabaziko zuela uste zuen Dionik. Aurretik erlojuaren aurkako proban Hierrok baino denbora hobe egin zen, "baina, ez nuen oso egun ona eta ez nuen irabazterik izan. San Migeleko etapan urrutitik alde egin zuten eta uste genuen azkeneko harrapatuko genituela baina ez zen posible izan, 25 Segundorekin heldu ziren eta hortxe galdu nuen itzulia", dio.



Ezkerrean Dioni Galparsoro eta eskuinean Aitor Perez, bien artean Mikel Gaztañaga taldekide itsasondoarra dutela. Entrenamenduetarako, bidaietarako, denerako gustoko dute hiru lagun talde berean egotea eta beraien artean oso giro ona dute.

Denboraldi hasiera indartsu

Denboraldia ondo hasi nahi zuten eta eguraldi onarekin erregularitasunez entrenatzeko neguan Benidormera joan ziren entrenatzera. "Garrantzitsua da denboraldi hasieran indartsu ibiltzea, bukararako jendea gogorik gabe egoten baita. Gainera aurten Espainiako Kopako lasterketa gehienak denboraldi hasieran izan dira", Dionik 4. postua egin du eta Aitorrek 6.

Sasoiari eustea da ondorengo arazoa, "helburua profesionaletara pasatzea da eta beti egindakoarekin nahikoa dela iruditzen zaizu eta pasa-

tzen ez bazara lanean jarraitzeko gogoa kentzen zaizu. Zu denboraldi guztia puntan zabilta eta ikusten duzu beste bat hilabete bat edo bi ondo ibili eta pasatu egiten dela, horrek morala kentzen du", dio Dionik. Eta Aitorrek ondokoa gehitzen du: "afizionatuen arazoa da beti daudela lasterketa garrantzitsuak, helburu bat egin eta atsedean hartu nahi duzu, baina handik gutxira beste lasterketa garrantzitsuren bat duzu eta hartarako prestatu nahi duzu".

Aitor, ordekan eta erlojuaren aurka ibiltzen da ondo, Dioni, berriz, aldapa gora eta

esprintean. "Ondo ibiliz gero denean ibiltzen zara ondo, eta gaizki ibiliz gero denean gaizki. Garrantzitsua forma onean egotea da, fisikoki gaizki egonda alperrik da espezialista izatea".

Profesionaletarako saltoa

Garai batean, beraiena baino palmarek apalagoarekin ere txirrindulariak profesionaletara igotzen ziren, baina orain goian talde gutxi daude eta oso zaila da igotzea. "Nafarroako itzulian, lehen atzerri-tarrak etorri eta erraz irabazten zuten, eta aurten 4 lehenak euskaldunak izan gara. Horrek maila handia dagoela esan nahi du. Gero profesionaletan talde gutxi daude eta fitxatu nahi badute esperientziaduna fitxatzea nahiago dute segituan emaitzak eman-go dituen eta ez afizionatuetatik datorrena eta urte pare batean emaitzen zain egon behar dena", dio Galparsorok.

Profesionaletara igotzeko itxaropenik ez dute galdu. "Ematen du zaharrak garela pasatzeko baina geroz eta salto txikiagoa dago afizionatuetatik profesionaletara eta ez da berandu pasatzeko. Aitorrek profesionalekin lasterketa batzuk korritu zituen eta aurrean ibili zen, eta adi-



ACV
MULTIMEDIA

DISEINU WEB

MULTIMEDIA

DISEINU GRAFIKOA

Zure web orria

100 €

Kutxak 300 euroko diru-laguntza eskaintzen du


Gure lanak ikusgai: www.acvmultimedia.com

Senpere Merkatalgunea, 1. lokala 20200 Beasain - Tel: 943 80 50 37 - acvmultimedia@acvmultimedia.com



Aitor Perez

Aitorrek 24 urte ditu zegamarra da eta hau du 7. urtea afizionatueta 4 Olarran eta 3 Caja Ruralen. Aurten 2 lasterketa irabazi ditu, Ororbian eta Beasainen, eta biak asteburu berdinean. Aurretik futboleko jokatzeko zuen eta berandu hasi zen txirrindularitzan, 17 urterekin jubeniletako 2. urtean.



Dioni Galparsoro

Dionik 23 urte ditu ataundarra da. Kaikun 3 urte egin zituen eta 3 Caja Ruralen. Aurten 3 lasterketetan lortu du garaipena, horietan esanguratsuenak Balentziaga memoriale. Osasun arazo asko izandakoa da: sabeleko gaixotasuna, alergiak... horrek txirrindu gainean zuen guztia ematen ez zion utzi baina orain, bete-betean ari da.

bidez, Nafarroako itzulian lehen 20 postuetan sartzen ez diren profesionalak parte hartuko balute nahiko lan izango lukete erritmoa jarraitzeko", esan digu Dionik.

Afizionatueta ibili arren profesionalen bizitza egiten dute, bai entrenamendu aldeetik bai eta eguneroko bizitzan ere. Aitorren ustez, "dagoen aldeko kibratzen dugun dirua da. Txirrinduak denbora asko kentzen digu, entrenamenduak, lasterketak, atsedena hartu beharra dago... Hori lan eginez ezinezkoa da. Buzia horretarako behar duzu, ezin duzu entrenamenduetatik utzi,

bestela ezinezkoa da hori aurrean ibiltzea. Eguneroko lana da".

"Orain aurrean dabilen profesionalak, Olano eta zaharrenak kenduta, gurekin korritu dute, eta ez ziren gu baino askoz gehiago ibiltzen, orain hori daude, Beloki, Freire... Tourrean 3. eta munduko txapeldun. Hori ikustek lanean jarraitzeko indarra ematen du", diote.

Euskaltelek gehienbat Olarra taldera begiratzen du, eta aurten, ez dago asko nabarmentzen duen txirrindularirik, iaz bazituzten 4 bat, beraz beste taldeetara begiratu

beharko dute. Talde on batek interesa azalduz gero, ez litzaike Italia edo Frantzia aldera joatea inportako.

Txirrindularien esfortzua

Orain dopinak asko zikindu du txirrindularitza. "Lehen gehiago baloratzen ziren txirrindularien esfortzua eta lorpenak. Orain, txirrindularitza asko ulertzen ez dutenentzat, denak drogaturik doaz, eta ez dira konturatzen horren atzean ordu askotako lana eta esfortzu handia dagoela. Giroan ere prentsan leku gehiago eman zaie dopin kasuei lasterketari berari

baino. Beste kiroletan txirrindularitzan adina kontrol egingo balituzkete askoz kasu gehiago azalduko lirateke", diote.

Txirrindularitza kirol gogorra da, pajarak, aldapa gogorrak... Txirrindulari gazteek azaldu digutenez, "entrenamenduren batean harrapatu izan dut pajara eta oso gaizki pasatzen da. Lasterketan talde batean justu bazoaz eta jendea eraso eta eraso hasten bada morala galtzen da. Gogorragoa da talde batean justu-justu joan eta beste guztiak fresko ikustea. Ondoko zabilazanean ez da hain gogorra, disfrutatu egiten da. Gainera lasterketa batean 4 ordu sufritu, eta gero egun guztia duzu atsedena hartzeko. Eta batez ere itzulietan, ondoren masajea prest izaten dugu, ez dugu ezer egin beharrik, eskatutakoa eskura izaten dugu. Momentu txarrak pasatzen ditugu baina ondo bizi gara txirrindulariok. Gogorragoa iruditzen zait egunero 7etan jaiki eta lanera joatea".

Ametsak

Txirrindularien ametsa Tourrean parte hartzea dela esan izan ohi da. Baina oraingo protagonistentzat parte hartu eta ondo ibiltzea da ametsa. "Lasterketan miseria pasatzen ibiltzea ez daio inori gustatzen. Profesionalak pasatu pasatzeagatik ez da helburua izaten. Profesionala izan eta zerbait egitea, ona izatea da nahi izaten duguna".

GABINETE PSIKOLOGIKOA

ARPE

Pedro Jose Landa Gutierrez

PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

- * Depresioak
- * Harremanetarako arazoak
- * Beldurrak
- * Antsiak
- * Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. BEASAIN

Abuztua

750 Euro

Bilbo-La Havana-Bilbo
Gehienez 45 egun

Hirigoi, 12 LAZKAO
Tel.: 943 889 291 Faxa: 943 883 971
e-posta: algoz@wanadoo.es

GERTU

aholkularitza

TXEkin programarako homologatutako erakundea

txekin Kale Nagusia, 2
BEASAIN
Telf: 943 16 21 92

ZINEA

ORDIZIA

'La maquina del tiempo'

Ostirala, 7: 22:15.

Igandea, 9: 16:45.

'Yo soy Sam'

Larunbata, 8: 19:30 -

22:15.

Igandea, 9: 19:30 - 22:15.

Astelehena, 10: 19:30.

antzerkia

ATAUN:

Ekainak 14, 'Hau Parade-roa' antzerkia, Herri Antzo-kian, 22:00etan.

SEGURA:

Ekainak 14, 'Ai Martin' antzerki musikatua, Plazan, 22:00etan.

Ekainak 16, Karkar an-terki taldea, plazan, 18:00etan.

musika

BEASAIN:

Ekainak 13, Musika Esko-lako ikasleen kontzertua, Udaletxeko batzar aretoan, 19:30ean.

Ekainak 13, Javier Arrilla-garen kontzertua, 21:00etan, Igartzako jauregian. Sarrera: 3 euro.

Ekainak 20, Mikel Telle-riaren kontzertua, Igartzako jauregian, 21:00etan. Sarre-ra: 3 euro.

Ekainak 20, Musika Esko-lako ikasleen ikasturte amaierako kontzertua, Usur-be Antzokian, 19:30ean.

Ekainak 20, Musika Esko-lako bandaren kontzertua, Loinazko San Martin plazan, 19:30ean.

LAZKAO:

Ekainak 11, Ilunpeko bes-taldia: Chris Blasen, Alxe Mendizabal eta Mark Goell-ner. Pax etxean.

ORDIZIA:

Ekainak 7, Poltsikoko Ikus-kizunak barruan, Cadence Trio taldearen kafe-kontzer-tua, Barrenan.

Ekainak 7, Kafe Usainaren ekintzen barruan, Nekin tal-dearen kantaldia, Herrikoa Tabernan, 22:30ean.

Ekainak 15, Oroit eta Oroit Txiki abesbatzen kon-tzertua, Elizan, 20:00etan.

SEGURA:

Ekainak 14, Jabier Arrilla-ga gitarra jolearen kontzer-tua, Ardixarra etxean, 20:00etan.

bertsoak

LEGORRETA:

Ekainak 8, Herri Zineman, 22:30ean: Joxe Agirre, Amets Arzallus, Jesus Mari Irazu, Maialen Lujanbio, Ai-tor Mendiluze eta Aitor Sa-riegi. Gai-jartzailea: Jose Mari Agirre 'Txato'.

erakusketak

ATAUN:

Uztailaren 14ra arte, Zahar-kinak erakusketa Auzoeta ki-roldegian. 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.

BEASAIN:

Irailaren 30era arte, Ars Lig-nae erakusketa, Igartza jaure-gian.

Ekainaren 8tik 28ra arte, Victor Jesusen ikasleen eskul-tura erakusketa, Aterpe taber-nan.

Ekainaren 9ra arte, Elena Lusaren margo erakusketa, Usurbe antzokian.

Ekainaren 14tik 23ra arte, Urbietako arte plastikoen zentro-ko ikasleen margoen erakus-keta, Usurbe antzokian.

ORDIZIA:

Ekainaren 7tik 28ra arte, Jo-se Vicente Cos artistaren es-kultura erakusketa, Barrenan.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Azpilikueta
(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.
Ekainak 8-9: Lournaga
(Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943 881828.
Ekainak 15-16: Urbizu
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.

X A · X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

☎ 943 02 75 55 Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN



F.M. 89.2

EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN

XXVI. Euskal Herriko dantza txapelketa

Seguran, ekainaren 15ean eta 16an

San Joanak iritsi aurretik, ohi bezala, Seguran, Euskal Herriko dantza txapelketako jokatu da. 26. edizioa izango da aurtengoa. Ekainaren 15ean kanporaketa eta 16an, finala jokatu dira. Baratze pilotalekuan, arratsaldeko 6etan da zita ordua.

Bikoteko batek 15 urte baino gehiago izan beharko du Euskal Herriko dantza txapelketan parte hartu ahal izateko. Euskal herriko herri bat ordezkatu behar du; hala ere, udalerrri bakoitza bikote batek baino gehiagok ordezkatu dezake.

Fandangoa txistuz eta Ariñ-ariña trikitiaz dantzatu du dantzariak. Finala, kanporaketan sailkatutako lehenengo 12 bikotek jokatu dute. Finaleko ekitaldia Euskal Telebistak hartu du.

Kanporaketan nahiz finalean Euskal Herriko Dantza-jantzi tradizionalak eramatea derrigorrezkoa izango da. Jantzien ikusgarritasuna eta dotorezia areagotzeko helburuarekin bikoterik onenarentzat 200 eurotako sari berezia emango du E.I.T.B.k eta 121 eurotako bigarren sari bat emango da. Sari hauetarako aukera izango dute kanporaketa saioan jantzien sariketakako hautatuak izaten direnek eta finaleko jaialdiko desfilean parte hartzea onartzen dutenek.

Epaimahaia sei dantza adituk osatuko dute eta euren izenak lehiaketaren aurkez-



pen egunean ezagutaraziko dira. Epaitze lan eta erabakiak, federazioan ezarrita dauden sueltoko dantza arauetan oinarrituak egongo dira.

Sariak

I. saria: Segurako Udalaren sari nagusia: Nestor Basterretxearen eskultura. Sari hau bikote txapeldunak ordezkatzeko duen Udaletxean gordeko da hurrengo txapelketa ospatu arte. Udal bat eskulturaren behin betirako jabe egingo da, baldin eta ordezkatzeko duen bikote berak txapelketa hiru urtez jarraian edo bost urtez txandaka irabaziko balu. 662 Euro bikoteari, Segurako Udalak eskainia. Urrezko plaka, txapela eta lepokoa bikotearentzat. Euskal makila bana (G.E.D.B.ren eskutik) bikotearentzat. Eroski Bidaia sari berezia.

II. saria: 481 euro eta oroigarria.

III. saria: 361 euro eta oroigarria.

Laugarren sailkatutik hamabigarrenera: 151 euro bikote bakoitzari.

Txapelketan parte hartu duten gainerako bikote guztiei 73 euro.

Herriko bikoteentzat sari berezia.

Txapelketako bikoterik gazteenarentzat sari berezia.

Txapelketara lehenbiziko aldiz aurkeztu diren bi-

koteen artean ongien sailkatzen denari.

Izenematea

Txapelketan parte hartu nahi duten bikoteek Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrean egin behar dute izen ematea, 943-289848 telefonoan, 943-277232 faxean edo edb@euskalnet.net posta elektronikoa, oinarri hauekin zabaltzen den agiria betez eta bikote bakoitzak dantza jantzien deskribapena eginez, 2002ko ekainaren 8ko arratsaldeko ordu biak aurretik. Xehetasun gehiagorako G.E.D.B.ra edo Segurako Udaletxera (943-801006) deitu.



Ekainak 14, ostirala:

20:00etan: Jabier Arri-llaga gitarra jolearen kontzertua, Ardixarra etxean.

22:00etan: 'Ai Martin' antzerki musikatua, plazan.

23:30ean: Basajaun taldea, plazan.

Ekainak 15, larunbata:

16:00etan: Txirrindulari proba.

18:00etan: XXVI. Euskal Herriko Dantza Txapelketako kanporaketa, Baratze pilotalekuan.

18:30ean: Danborrada.

Ondoren: Oria Txaranga.

20:30ean: Patxi Perez & Batbiru taldea.

23:00etan: Kiñu taldea.

Ekainak 16, igandea:

11:00etan: Plater hausketak Mendotze aldean.

18:00etan: Karkar antzerki taldea herriko plazan.

18:00etan: XXVI. Euskal Herriko Dantza Txapelketako finala, Baratze pilotalekuan.

19:00etan: Erraldoiak eta buruhandiak.

Etxebizitzak

salgai

➔ Etxe eraiki berria salgai, Ordiziako Filipineta kalean. 90 m². 3 logela, 2 bainu, egongela eta sukalde jantzia. Garaje eta trasteroarekin. Estreinatzeko. 225.000 euro. 943027022.

Mandio inmobiliaria

Laskurain kalea, 3 Tolosa
Telf: 699936801

✓ **Segura.** Adosatu berria, garajea eta 200 m²ko terrenoarekin. Giltzak aurtun.

✓ **Ikaztegieta.** Billa adosatua. Garaje eta trasteroarekin.

✓ **Ormaiztegi.** Billa adosatu berria. Tximeneta, terraza, garajea. Polita.

✓ **Idiazabal.** Etxebizitza pareatua, garaje eta txokoarekin.

✓ **Alegi.** Etxebizitza berriak. 25 milioi pezetatik.

✓ **Gabiria.** Baserri berri-tua salgai.

➔ Itsasondon etxebizitza salgai. 943889576.

➔ Ordizian, Urdaneta kalean, pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 943885664.

➔ Lazkaon etxebizitza unifamiliarra salgai. Terrenoarekin. 943888699 - 943086895.

➔ Ikaztegieta 127 m²ko etxebizitza unifamiliarra salgai. Tren geltokitik gertu. Prezio oso interesgarria. 678240829.

konpartitu

➔ CAFeko bi ingeni-
rok Beasaingo Oriamendi kalean dagoen pisu bat elkarbanatuko lukete. Bereziki banketxetako langile edo irakasleetan pentsatzen da. 943027799. (20:00etatik aurrera deitu) - 456761030.

➔ Iruñean ikasle pisu bat osatzeko neska bat behar da. 605752095.

➔ Madrilan ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzaileak. 914090390.

errentan eman

➔ Laredon apartamentua alokatzen dut, hondartza ondoan. 943795280 - 656717745.

➔ Jacan apartamentua alokatzen da, igerilekuarekin. 943216684.

➔ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretan. 948539381.

Garajeak

salgai

➔ Beasainen lur azpiko 2 garaje salgai, J.M. Iturrioz 7an. 943187424 - 659939779.

Lur sailak

erosi

➔ Goierrin, hektarea 1 eta 2 arteko lur saila erosiko nuke. 943160563.

Pabilioiak

salgai

➔ Itsasondon Ibai-ondo industrialdean 7. pabilioia salgai. 212 m². Altura 9 metro. Prezio interesgarria. 652775737.

Bestelakoak

erosi

➔ Gurdi-denda erosi-ko genuke, 4 pertsonentzako. 943881978. Eguerdian edo gauean deitu. arrietabeo@euskalnet.net

salgai

➔ Astra GSi 16 V edo Astra GSi-rentzat Blisstein amortiguadoreak eta eibach muelleak salgai. Oso denbora gutxi dute. 70.000 pezeta. 636070874.

➔ Bi enziklopedia bilduma salgai: Euskara batua (3 tomo) eta Jakintza Bideak (5 tomo). 943882467 - 626610384.

➔ Super turismo markako 205 x 55 x 16 llantak salgai. Kubieta eta guzti. 943800032.

➔ Mercedes Vita batentzako 17 "-ko llantak salgai, OZracing etxe-koak. 650966705.

➔ Garbigailua, labadora, salgai. Egoera oso onean. Prezio interesgarria. 661700392.

➔ Gas Gas TXT 321 motorra salgai. 2001. urtekoa. Prezio interesgarria. 669688547.

➔ Marshall '30 aniversario' kitar amplifikagailua (kabezala eta pantaila) oso merke saltzen dut. 160.000 pezeta. Anpliarekin fight case edo funda dohainik. 943884795. Mikel. 17:00eta

Ibilgailuak

salgai

➔ Honda CBR 600F motorra salgai. Oso egoera onean, ongi zaindua. 93. urtekoa. 653720774.

➔ Nissan Banette bat, kanpinerako prestaturia, salgai. 943290312 (gauez).

➔ Volkswagen Golf GTI autoa salgai. L-U. 686261188 - 943806022 (Patxi).

➔ Aprilia scooter SR-50 DI motorra salgai. 615754725.

➔ Renault Espace turbo diesela salgai. Egoera onean. Merke. 657702174.

➔ Golf-II GTI salgai. SS-AC. 300.000 pezetan. 655716395. Gauean deitu.

➔ Citroen Berlingo salgai. 5 urtekoa. 943887246.

➔ Peugeot 205 salgai. 1900 diesela. Txuria. 3 atekoa. SS-AF. 943885024.

➔ Yamaha TZR (50 c.c) motorra salgai. Egoera onean. Prezio interesgarria. 943885147. 20:00etatik aurrera deitu.

➔ Trialeko Beta motorra salgai. 250 cc. 225.000 pezeta - 1.352,27 euro. Ibon. 696420258 - 943889503.

➔ Volkswagen furgoneta salgai. Sukalde, berogailu eta ohearekin ekipatua. 620860285.

➔ Kawasaki GPX 600 motorra salgai. Egoera onean. 1.200 euro. 943766401 - 605712473.

Animaliak

➔ Pastor Aleman arraza oneko txakurkumeak salgai. Pedegreearekin. 626523064.

salgai

Lana

eskaerak

➔ Gizonezko bat behar da beste gizonezko baten garbitasunez arduratzeko. Astean behin. Hileko 60,10 euro (10.000 pezeta). 943084202.

➔ Ileapaindegirako ileapaintzailea behar da, larunbatetarako. 943800002.

➔ Neska edo emakumea behar da, Beasainen 2 haur zaintzeko. 943887652.

➔ Zerbitzaria behar da Lazkaon tabernan lan egiteko. 943882029.

➔ Neska bat behar da erretegi batean larunbata gauetan lan egiteko. 620107400.

➔ Klinikak laguntzaileak, garbitzaileak eta sukaldariak behar dira. Kurrikuluma bidali: Eulen fexiplan. Esteban Lasa, 2. Beasain.

➔ 2 haur zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da

Lazkaon. 943161019.

➔ Beasainen neska euskalduna behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943880845.

eskaintzak

➔ 21 urteko neska eskaintzen da udan tabernan edo dendan lan egiteko. 943160181 (arratsaldean deitu).

➔ 23 urteko neska esperimentziduna eskaintzen da, haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko. 652767686

➔ Edozein lanerako mutila eskaintzen da. 943430640 - 639983891.

➔ 24 urteko neska prest dago arratsaldetan haurrak zaindu eta dendetan lan egiteko. 661700392.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritzak

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

AROTZ LAGUNTZAILEA
Tolosaldean. Erref. 79630/4

ERREBEBATZAILEA
Tolosan. Erref. 77644/4

TORNEROA
Adunan. Erref. 80188/2

ERAIKUNTZAKO PEOIA
Andoianen. Erref. 79824/2

3 ESKOLTA PRIBATU
Donostialdean. Erref. 78861/3

3 KOMERTZIAL
Multinazional frantsesa. Erref. 79958/3

KLINIKA LAGUNTZAILEA
Donostialdean. Erref. 79752/3

TEKNIKO INFORMATIKOA
(%33 EZINTASUNA)
Donostialdean. Erref. 77901/3

CNCrako IRAKASLEA
Urola Garaian. Erref. 79519/4

2 ETXEZ ETXKO LAGUNTZAILE
Tolosan. Erref. 79634/3

ESKUZO MOLDATZAILEA
Tolosan. Erref. 77646/4

Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatx eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**

IKASTEK AKADEMIA

2002.eko UDA

Tailerrak: irakurmena, idazmena, matematika

Datorren ikasturterako prestaketa:


- | | |
|---------------------|-------------------------|
| * Euskara, ingelera | * Fisika, kimika |
| * Latina | * Matematika |
| * Testu komentatuak | * Maila eta gai guztiak |

Selektibitatea, unibertsitateko prestaketa.

Unibertsitate maila

- | | |
|----------------------------|------------------------|
| * Goierriko Unibertsitatea | * Psikologia, farmazia |
| * Enpresaritza | * Etab. |

ikastekakademia@latinmail.com
http://usuarios.tripod.es/ikastek
☎ 943 160 120
Joan Iturralde, 5 **BEASAIN**



Korpuseko prozesioa Ordizian, 1952an

1. Gregorio Miralles, 2. Balentin Eraso, 3. Zaldúa, 4. Jabier Ezeiza, 5. Mitxel Munduate, 6. Julian Ezenarro eta 7. Luis Maria Gonzalez.



hilean euro 1
Goierritarra
 etxean jasotzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Telefonia: Adina: NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Goierritarraren harpidedun naiz
 eta hala izaten jarraitu nahi dut ☐

Ez naiz Goierritarraren harpide
 eta hemendik aurrera izan nahi dut ☐

**Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia
 eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro (2.000 pezeta inguru)
 kobratuko dizkizugu zure kontu korrontetik**



Tel. eta Faxa: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

ERAKUSKETA:
Lorategiko eta
terrazako altzariak,
kolore ezberdinetako
aluminio lakatuan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42

LAZKAO

toldosagustin.com

e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

ALOKAIRUA ETA SALMENTA ZERBITZUA



STIHL



AGROTRESNAK
SAKANA



Salbatore auzoa

BEASAIN

Tel.: 943 164 103

Faxa: 943 164 736

Gasteiz Etorbidea, 8

ALTSASU

Tel.: 948 562 805

Faxa: 948 564 156



TRATORETAN
AUKERA ZABALA



BELARRETARAKO TRESNERIA

Gure produktuak zerbitzu onenarekin bermatzen ditugu

Aurtengo udan zuri egokituko gatzazkizu:

Igeriketako hasierako eta hobekuntzako ikastaroak,
tenisa, udaleku txikia, kirol-udalekua, kirol-festa,
kirol-abentura, zaldiketa-ikastaroa, abentura
naturan, piraguismoa, arkuzko tiraketa, eskalada,
aerobica, sasoiari jartzeko terapia-ariketak,
soinketa, mantentzeko soinketa, hirugarren
adinekoentzako jarduera bereziak, etab.

2002ko uda
antzizar kiroldegia. tel.943 88 79 00